| | |
|---|---|
| **ORGANOA:** | Udalbatzar Txit Garaia |
| **ÓRGANO:** | Excmo. Ayuntamiento Pleno |
| **BATZARRALDIA:** | Ohiz kanpokoa |
| **SESIÓN:** | Extraordinaria |
| **TOKIA:** | Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa |
| **LUGAR:** | Salón de Plenos de la Casa Consistorial |
| **EGUNA:** | 2017ko urriak 24 |
| **FECHA:** | 24 de octubre de 2017 |
| **HASIERA ORDUA:** | 09:30 |
| **HORA DE COMIENZO**: | 09:30 |
| **LEHENDAKARIA:** | Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea. |
| **PRESIDE:** | Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián. |
| **ETORRITAKOAK:** | Alkateorde jaun-andreak: |
| **ASISTEN:** | Los/las señores/as Tenientes de Alcalde: |

Don Ernesto José Gasco Gonzalo jauna
Doña Miren Azkarate Villar andrea
Doña Duñike Agirrezabalaga Ugarte andrea
Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores concejales/as:

Doña Pilar Arana Pérez andrea
Don Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jauna
Doña Aitziber San Román Abete andrea
Don Martin Ibabe Eceiza jauna
Doña María Jesús Celaya Egiguren andrea
Don Jon Insausti Maisterrena jauna
Don Enrique José Ramos Vispo jauna
Don Miguel Ángel Díez Bustos jauna
Doña María Luisa del Pilar García Gurruchaga andrea
Don Alfonso Gurpegui Ruiz jauna

Doña Begoña Palos Barbero andrea
Doña Miren Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andrea
Don Josu Mirena Ruiz Martín jauna
Doña Naiara Sampedro Pérez andrea
Doña Olaia Duarte López andrea
Don Ricardo Burutarán Ferré jauna
Don Ayem Oscoz Urrutikoetxea jauna
Doña Miren Albistur Garmendia andrea
Don José Luis Arrúe Pintó jauna
Don José María Murguiondo Casal jauna
Doña Amaia Martín Garín andrea
Don Loïc Alejandro jauna

**IDAZKARIA:** Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkari nagusia.

**SECRETARIO:** Don Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Secretario General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

**KONTU-HARTZAILEA:** Julian Ortiz Arruabarrena jauna, Udal Kontuhartzaile Nagusia.

**INTERVENTOR:** Don Julián Ortiz Arruabarrena, Interventor General Municipal.

---------------


| LABURPENA | SUMARIO | Pág / Orr. |
|---|---|---|
| Politika orokorrari buruzko urteko adierazpean. | Declaración anual de política general. | 3 |


---------------

**DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN OSOKO OHIZ KANPOKO BILKURA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.**

**SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN.**

---------------

**Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena.**

**Declaración anual de política general.**

Alkate-Udalburuak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el Sr. Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**ATSEDENALDIA**

**10:35ean, 15 minutuko atsedenaldia egiten da eta berriro ere ekiten zaio saioari, 10:50 denean.**

**RECESO**

**Siendo las 10:35 h, se suspende la sesión por 15 minutos y se reanuda la misma, siendo las 10:50 h.**

---------------

Eztabaida hasita, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/as señores/as D. Ernesto Gasco Gonzalo, Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Dª. Miren Albistur Garmendia, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Azkarate Villar y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**ATSEDENALDIA**

**14:00etan atsedenaldia egiten da eta berriro ere ekiten zaio saioari, 17:00ak direnean.**

**RECESO**

**Siendo las 14:00 se suspende la segunda parte de la sesión y se reanuda la misma, siendo las 17:00 h.**

---------------

**TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN INGURUKO EZTABAIDA.**

**DEBATE SOBRE LAS PROPUESTAS PRESENTADAS POR LOS PARTIDOS.**

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Miren Azkarate Villar andreak, Alkate-Udalburuak eta Idazkari jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/as señores/as Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia, Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Ernesto Gasco Gonzalo, Dª. Miren Azkarate Villar, Alcalde-Presidente y Sr. Secretario, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**1. Ebazpen Proposamena, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, bizitza duin baten alde.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 55. artikuluan oinarrituta, Ebazpen Proposamen hau aurkezten du Donostian BIZITZA DUINA IZATEAREN ALDE, Udalbatzan aztertua izan dadin.

JUSTIFIKAZIOA

**1. Propuesta de Resolución presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA por una vida digna.**

“Amaia Martin, portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente Propuesta de Resolución para su tratamiento en Pleno, en favor de UNA VIDA DIGNA en la Ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Politika orokorraz aritzean hiriaren egoera aztertu dugunean, Irabazi Donostia taldekook behin eta berriz esan dugu Donostiaren “proiektu estrategikoak” zein izan behar duen: desberdintasun sozialak eta prekarietatea desagerraraztea, bizitzarekiko erantzunkidetasuna nahiz gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna lortzeko bidean hobetzen jarraitzea, eta hori guztia egitea kontuan hartuta gure ingurune naturalaren mugak, hurrengo belaunaldien bizi baldintzak arriskuan jarri gabe. Hori guztia ezinbestekoa da bizitza duin bat izateko, bai gaur egun, baina baita geroan ere.

En nuestra intervención de política general sobre el estado de la ciudad, hemos insistido que “el proyecto estratégico”de Donostia es terminar con las desigualdades sociales y la precariedad, avanzar en la corresponsabilidad de la vida y en la igualdad de mujeres y hombres, y hacerlo teniendo en cuenta las limitaciones de nuestro entorno natural, sin comprometer las condiciones de vida de generaciones futuras. Todo ello imprescindibles para tener una vida digna hoy pero también en el futuro.

Eztabaidan, nolako Donostiarantz egin nahi duen bidea esan du Udal Gobernuak: pertsona bakoitzak bere bizi proiektua ahalik eta baldintza onenetan egiteko modua izango duen Donostia baterantz, hain zuzen. Ebazpen proposamen honetan zenbait puntu jaso ditugu, eta puntu horietarako neurri asko Udalaren eskumenekoak dira, ez beste inorenak; hau da, ez daude merkatuaren esku, ez eta Udalaz kanpoko beste ezein eragileren esku ere: gai horietan, nola kudeatzen diren, errazago lortuko da helburu hori, “pertsona bakoitzak bere bizi proiektua ahalik eta baldintza onenetan egiteko modua” izatea, alegia.

En el debate, gobierno municipal ha afirmado que la ciudad a la que desea caminar es una ciudad en la que cada persona pueda desarrollar su proyecto de vida en las mejores condiciones posibles. Todos los puntos contenidos de esta propuesta de resolución tienen medidas que son competencia exclusiva del Ayuntamiento, es decir, no dependen ni del mercado, ni de otros agentes externos a él, son materias en las que dependiendo de cuál sea su gestión, será más fácil alcanzar el objetivo de que “cada persona pueda desarrollar su proyecto de vida en las mejores condiciones posibles”.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

Por todo ello, presentamos la siguiente:

EBAZPEN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio martxan jar dezala lan prekarietatearen kontrako plan bat, eta horren baitan:

1. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno municipal a la puesta en marcha de un plan contra la precariedad laboral con las siguientes actuaciones:

- Egin dezala informazio kanpaina bat,

- Desarrollar una campaña informativa

herritarroi agerira ekar diezagun Donostiako lan prekarietate gero eta handiagoa; kanpainak emakumezkoen egoera nabarmendu behar du, sektore nabarmen prekarizatua baita emakumezkoena.

- Jar dezala Udaleko webgunean lan prekarietatea salatzeko leku bat.

- Sortu dezala patronalaren eta sindikatuen arteko elkarrizketa mahai bat, Udala bitartekari dela, mahai horrek aukera eman dezan Donostiako zenbait sektore estrategikotan negoziazio kolektiboa egungo blokeo egoeratik ateratzeko (adibidez, ostalaritzan), lor dezagun langileen eskubideak bermatuta daudeneko enplegu duin baterako oinarriak finkatzea.

2. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio egin dezala enplegu bermatuko plan bat, Udalak zuzenean kudeatua. Helburu hau izango du planak: lanpostu bat eskaintzea lan egiteko moduan egonda ere enplegurik aurkitzen ez eta beren borondatez planarekin bat egitea erabakitzen duten pertsona guztiei.

Enplegu bermatuko planak bi ardatz izango ditu:

a) Pertsonenganako arreta, udal langile gehiago jarrita gizarte ekintzako sailean, hobeto erantzuteko gizarte arloko behar gero eta handiagoei.

b) Enplegu berdeak sortzea, batetik, energia berriztagarrien arloan, energetikoki buruaskiak izatea lor dezagun, eta bestetik,

que permita visibilizar la creciente precariedad laboral en la ciudad dando un papel protagonista a la mujer como sector ampliamente precarizado.

- Facilitar un espacio en la web municipal de denuncia de la precariedad laboral.

- Crear una mesa de diálogo entre patronal y sindicatos,en la que el Ayuntamiento ejerza de mediador, que permita desbloquear la situación de la negociación colectiva en sectores estratégicos de la ciudad tales como la hostelería al objeto de sentar las bases para un empleo digno y con derechos.

2. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno municipal a establecer un plan de empleo garantizado gestionado directamente. El citado plan tendrá como objetivo proporcionar un empleo a todas aquellas personas que, estando en situación de trabajar, no encuentran uno y decidan voluntariamente sumarse al mismo.

Este plan de empleo garantizado tendrá dos ejes:

a) La atención a las personas, mediante el incremento del personal del departamento de acción social, con el objetivo de atender mejor las crecientes necesidades sociales.

b) La creación de empleos verdes en energías renovables que nos permitan ser autosuficientes, así como en el ámbito del la

gure ingurune naturalaren zaintza, babes eta hobekuntzaren arloan, hondakinen kudeaketarenean eta eraikinen birgaitze energetikoaren arloan.

vigilancia, cuidado y mejora de nuestro medio natural, la gestión de los residuos, o la rehabilitación energética de los edificios.

3. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio sor dezala Kontratazio Publikoaren Behatoki bat, kontsulta organo gisa. Behatokian partaide izango dira bai enpresa esleipendunak eta bai enpresa horietako langileen ordezkariak, horrela jarraipena egin ahal izango baitzaie azpikontratatuek egindako zerbitzuei eta bermatu ahal izango baita enpresek kontratuak bete bitartean dituzten eginbeharrak betetzen dituztela.

3. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno municipal a la creación de un Observatorio de la Contratación Pública, a modo de órgano consultivo, del que formen parte tanto las empresas adjudicatarias como la representación de los y las trabajadoras de las mismas, para hacer un seguimiento de los servicios que las subcontratas llevan a cabo y garantizar el cumplimiento de las obligaciones que las empresas tienen a lo largo de la ejecución de los contratos.

4. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio egin dezala azterlan ekonomiko, finantzario eta juridiko integral bat, helburua izanik aztertzea zer aukera dauden Udalak eta haren mendeko erakundeek zeharka kudeatzen dituzten zerbitzu publiko batzuk munizipalizatzeko. Azterlan horrek garbi zehaztu beharko du zein den zerbitzu publiko horiek enpresa publikoen bitartez nahiz udal zerbitzu gisa kudeatzeko formula juridiko bideragarriena, zer kostu ekonomiko izango duen Donostiako Udalak zerbitzu horiek zuzenean kudeatzen baditu, eta lan arloan zer ondorio ekarriko dituen zerbitzu horiek munizipalizatzeak. Eta, gainera, datozen hiru urteotan amaituko diren azpikontratatutako zerbitzuei buruzko xehetasunak jasoko ditu.

4. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno municipal a elaborar un estudio integral de carácter económico, financiero y jurídico que analice la posibilidad de municipalizar algunos de los servicios públicos que el Ayuntamiento y sus entes dependientes gestionan de forma indirecta. El citado estudio especificará tanto la fórmula jurídica más viable para la gestión de los mismos, bien a través de empresas públicas, bien como servicios municipales, como el coste económico que para el Ayuntamiento de Donostia supondría su gestión de forma directa, así como las consecuencias laborales de la citada municipalización. Asimismo, contendrá un detalle pormenorizado de aquellos servicios subcontratados que finalizan en los próximos tres años.

5. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio handitu dezala langileen kopurua, Udaleko sail guztietan genero politikak zeharkako bihurtzeko lana indartze aldera, politika publikoen muin bihurtu dadin berdintasun egiazko eta eragingarria lortzea.

5. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno municipal a incrementar la plantilla para reforzar el trabajo para transversalizar las políticas de género en todos los departamentos del consistorio al objeto de poner en el centro de las políticas públicas la consecución de una

igualdad real y efectiva.

6. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio sexuaren arabera bereizita egon dadila informazio guzti-guztia, baita azken mailakoa ere, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunik eza zuzentzeko hartu beharreko neurriak finkatu ahal daitezen.

6. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno municipal a que toda la información, hasta el último nivel, esté desagregada por sexos, para poder establecer las medidas necesarias para corregir la desigualdad de mujeres y hombres.

7. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio areagotu ditzala ahaleginak indarkeria matxistaren kontrako borrokan, egin ditzala kanpainak emakumezkoek bizitzaren sostenguan betetzen eginkizunak agerian jartzeko, eta sortu dezala, Berdintasun Batzordearekin batera, bizitzaren sostengagarritasunerako plan bat.

7. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno municipal a redoblar esfuerzos en la lucha contra la violencia machista, así como a desarrollar campañas de visibilización del papel de la mujer en el sostenimiento de la vida y a desarrollar, en colaboración con el Consejo de Igualdad, un plan de sostenibilidad de la vida en la ciudad.

8. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio neurriak har ditzala berma dadin adingabeek eta gazteek Donostian aisiako eta kulturako eskaintzara berdintasunean jotzeko aukera dutela, urte osoan eta, batik bat, opor garaietan.

8. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno municipal a establecer medidas destinadas a garantizar la accesibilidad de menores y jóvenes a la oferta de ocio y cultura de la ciudad en igualdad de condiciones, a lo largo del año, y especialmente, en época de vacaciones.

9. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio aurkez dezala egutegi bat, urtea amaitu baino lehen, jada eraikita dagoen Donostia honetan esku hartzeko asmoz etxebizitzaren arloan zer jardunbide eta noiz egingo diren zehaztuta, helburu hauek lortzeko:

- Hutsik dauden etxebizitzak Alokabide programan sar daitezen sustatzea.
- Etxebizitzen trukea erraztea, besteak beste etxebizitzen irisgarritasun ezagatik eta neurriagatik sortzen diren arazoei irtenbidea emateko.
- Etxebizitzen neurria aldatzeko moduak erraztea.
- Larratxon Irale eraikinari behin betiko irtenbide bat aurkitzea, errentan

9. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno municipal a que, con el objetivo de actuar sobre la ciudad ya construida, presente un calendario antes de fin de año, en el que se establezcan actuaciones de materia de vivienda para:

- Impulsar que las viviendas vacías pasen al programa de “Alokabide”.
- Favorecer la permuta de viviendas para dar solución a problemas de accesibilidad o de tamaño de vivienda.
- Facilitar el redimensionamiento de las viviendas
- Buscar una solución definitiva al edificio Irale en Larratxo con la construcción de

emateko apartamentuak eraikiz, bai gazteentzat, bai adinekoentzat.

Donostia, 2017ko urriaren 24a

Izpta.: Amaia Martin Garin.
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

apartamentos en régimen de alquiler tanto para jóvenes como para mayores.

Donostia, a 24 de octubre de 2017

Fdo. Amaia Martin Garin
Portavoz del grupo municipal Irabazi Donostia".

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**2. Ebazpen Proposamena, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, hiriaren jasangarritasunari buruzkoa.**

"IRABAZI DONOSTIA Udal Taldeko bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluan oinarriturik, HIRIAREN JASANGARRITASUNARI buruzko honako EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkeztu du, POLITIKA OROKORREKO URTEKO ADIERAZPENARI buruzko Udalbatzan aztertua izan dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Bizitzaren jasangarritasuna da hiriaren proiektu estrategikoetako bat, horrek bermatzen baitu gure gaur egungo bizimoduak ez dituela hurrengo belaunaldiak

**2. Propuesta de Resolución presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la sostenibilidad de la ciudad.**

"Amaia Martin Garin, Portavoz del grupo IRABAZI DONOSTIA, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, relativa a LA SOSTENIBILIDAD DE LA VIDA EN LA CIUDAD.

JUSTIFICACIÓN

La sostenibilidad de la vida es otro de los proyectos estratégicos de la ciudad, como forma para garantizar que nuestra existencia no compromete la de generaciones futuras. Por lo

kolokan jartzen. Beraz, eraginkortasuna handitzea, behar materialak murriztea eta pertsonen garapen emozional eta materialerako espazioak sortzea ezinbesteko baliabideak dira donostiarren bizitza duinerako.

Jendea gero eta kezkatuago dago klima aldaketaren aurkako borrokarekin, jasangarritasunarekin eta energia eraginkortasunarekin, eta Donostiako Udalak ere helburutzat hartu ditu horiek guztiak bai bere konpromiso instituzionaletan eta bai berariaz aurkeztu dituen udal planetan. Gainera, enplegu egonkorrak sortzeko aukera ematen dute.

Horrez gain, beharrezkoa da birziklatzearen eta gaiak berrerabiltzearen aldeko ekimen gehiago inplementatzea, eta gaiei erabilera berriak bilatzea, haien bizitza baliagarria ahalik gehiena luzatzeko eta produktu berriak produzitze aldera lehengai gehiago kontsumitu beharrik ez izateko. Helburu hori ez da bateragarria hondakinak erretzearekin.

Beharrezkoa da, halaber, HAPO klima aldaketaren ondorioak arintzearekin lotutako premietara egokitzea, hura baita hiria ordenatzen duen agiri nagusia, hondakinak erabiltzeko modua ezartzen duena epe ertain eta luzera.

Hori dela eta, Irabazi Donostia Udal Taldeak ebazpen proposamen hau aurkezten du, Udalbatzak eztabaida dezan:

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio sor dezala sail bat Ingurumen Departamentuko Ingurumen Osasunaren eta

tanto, aumentar la eficiencia, reducir las necesidades materiales y dotarse de espacios para el desarrollo emocional y material de las personas son herramientas indispensables para proporcionar una vida digna a los y las donostiarras.

La lucha contra el cambio climático, la sostenibilidad, y la eficiencia energética son cuestiones que preocupan cada vez a más personas, y son objetivos establecidos tanto en los compromisos institucionales firmados por el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastian, como en los propios planes municipales al respecto. Además, son fuente de generación de empleos estables.

Igualmente, son necesarias más iniciativas en favor del reciclaje y la reutilización de las materias, de la búsqueda de nuevos usos para los materiales con el objetivo de prolongar al máximo su vida útil y no tener que consumir más materias primas para producir otros nuevos. Este objetivo es incompatible con quemar los residuos.

Asímimo, es necesario que el PGOU se adapte a todas las necesidades para mitigar y adaptarse al cambio climático, al ser éste el principal documento que ordena la ciudad y establece los usos que se pueden desarrollar en ella a medio largo plazo.

Es por lo que el Grupo Municipal Irabazi Donostia presenta para ser debatida en el Pleno la siguiente:

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a crear una nueva Sección en el Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad del

Iraunkortasunaren Zerbitzuaren barruan, hirian energia berriztagarria sortzearen aldeko proposamenak lantzeko.

Departamento de Medio Ambiente cuyo objetivo será desarrollar propuestas de generación local de energía renovable.

2. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio jar ditzala teknikari gehiago Ingurumen Departamentuan, jasangarritasunarekin eta klima aldaketarekin lotutako planak betetze aldera inplementatu behar diren neurri guztiei aurre egiteko.

2. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a incrementar la plantilla del personal técnico en el Departamento de Medio Ambiente para poder hacer frente a todas las medidas que se deberán implementar para cumplir con los planes relativos a la sostenibilidad y al cambio climático.

3. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio azter dezala HAPO aldatzeko modua, klima aldaketaren ondorioak arintzearekin lotutako premiak aintzat hartzeko.

3. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a realizar un estudio para modificar el PGOU e integrar en el mismo las necesidades de mitigación y adaptación al cambio climático.

4. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio eginaraz dezala hirian tokiko dirua inplementatzeari buruzko azterketa bat.

4. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a encargar un estudio sobre implementación de una moneda local en la ciudad.

5. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio susta dezala, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Guztiona programa eta, legealdia bukatu aurretik, jar ditzala martxan bertako produktu ekologikoak kontsumitzeko zirkuituak ezartzean ardaztutako proiektu pilotu operazional eta egonkorrak, eskolei, ospitaleei, eguneko zentroei eta antzeko beste zentro publikoei elikagaiak ematea helburu hartuta.

5. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a, en colaboración con la Diputación, potenciar el programa Guztiona para contar, antes del fin de la legislatura, con varios proyectos piloto operacionales y estables de circuitos cortos de consumo de productos agrícolas locales y ecológicos con el objetivo de suministrar alimentos a centros públicos como escuelas, hospitales o centros de día.

6. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio proposa dezala hiri baratze gehiago jartzeko plan bat, herritarrek hirian zehar gune gehiago izan ditzaten (eta ez Garbera inguruko lursaila soilik) bai bakarka eta bai beste batzuekin batera baratzeak jartzeko.

6. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a proponer un plan de incremento de los huertos urbanos con el fin de que la ciudadanía pueda disponer de más espacios repartidos dentro de la ciudad (y no solo en una parcela cerca de Garbera), en modalidad individual o abierta y compartida.

7. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio

7. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno

jar ditzala martxan, legealdia bukatu aurretik, gaika biltzen diren hondakinak % 70era iristeko beharrezkoak diren neurriak.

8. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio sor eta presta ditzala zenbait gune, gaien bizitza baliagarria zabaltzearekin lotutako konponketan eta berrerabileran ardaztutako enpleguak sortzeko.

Donostia, 2017ko urriaren 24a

Izpta.: Amaia Martin Garin.
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

municipal a que ponga en marcha medidas para que la recogida selectiva de residuos urbanos llegue a un 70% antes de finalizar la presente legislatura.

8. El Ayuntamiento Pleno insta al gobierno municipal a habilitar espacios para la creación de empleo en torno a la reparación y reutilización para ampliar la vida útil de los materiales, dándoles una segundo uso.

Donostia, a 24 de octubre de 2017

Fdo. Amaia Martin Garin
Portavoz del grupo municipal Irabazi Donostia“.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**3. Ebazpen Proposamena, PP Taldeak aurkeztua, Donostiarako etxebizitza plan integralari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Araudi Organikoan indarrean dagoen 55. artikuluan oinarrituta, EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkeztu du Donostiarako etxebizitza plan integralari buruz, Udalbatzan aztertua izan dadin.

**3. Propuesta de Resolución presentada por el Grupo PP sobre plan integral de vivienda para San Sebastián.**

“Miren Albistur Garmendia, portavoz Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, sobre plan integral de vivienda para San Sebastián.

JUSTIFIKAZIOA

Duela aste gutxi batzuk Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkesta aurkeztu ziguten, Donostiako Plan Estrategikoa 2020 deritzonaren barruan.

Ebaluazio horretan, jakin dugu donostiarrek zenbait alderdi nola baloratzen dituzten, hala nola udal azpiegiturak eta zerbitzuak, garapen sozioekonomikoa eta hiriaren jasangarritasuna, zer pertzepzio duten bizi kalitateaz eta zer iritzi duten Donostiarako proiektu eta erronka estrategikoei buruz, eta alderdi guztien gainetik bat nabarmentzen da: etxebizitza eskuratzeko proiektuekiko interesa (% 36,8), nagusiki gazteei bideratuei buruzkoa, eta etxebizitza bat lortzearen “kezka”, dela errentan, dela jabetzan, garesti daudelako.

2016ko Hiri Ekonomiaren Barometroak emandako datuen arabera (Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoaren Behatoki Adimendunak egina), gaur egun, etxebizitza libre erabiliaren prezioa 4,409,5 euro/m2 da, eta etxebizitza libre berriarena, berriz, 4,338,39 euro/m2.

Legealdia hasi zenetik ekimen ugari aurkeztu ditu gure taldeak, egoera honen aurrean dugun kezka adieraziz. Bestalde, kezkatzen gaitu Udala eta Etxegintza erakundea nola ari diren bideratzen donostiarrei etxebizitza eskuratzen laguntzeko proposamenak.

Gure hiri hau zahartzen ari da, eta donostiar gazteak hemen gelditzeko modurik ez du lortzen. Azken azterlan demografikoetan ikusten denez, Donostiak eta oro har Euskal

JUSTIFICACIÓN

Hace escasas semanas se nos presentó la Encuesta de Percepción Ciudadana, dentro del marco del Plan Estratégico 2020 de Donostia/San Sebastián.

En esta evaluación, que comprendía la valoración por parte de los donostiarras de infraestructuras y servicios municipales, el desarrollo socioeconómico, la sostenibilidad urbana y la calidad de vida percibida, así como el conocimiento de su opinión sobre proyectos y retos estratégicos para la ciudad, resalta sobre todas las demás, el interés por los proyectos de acceso a la vivienda (36,8%), especialmente para jóvenes y la “preocupación” para contar con una vivienda, debido a su alto precio, ya sea en alquiler o en propiedad.

Actualmente, y según el barómetro de Economía urbana de 2016, elaborado por el Observatorio inteligente de la Concejalía de Impulso Económico, el precio de la vivienda usada libre, se estabiliza en torno a los 4,409,5 euros/m2. Y si nos fijamos en la vivienda nueva libre, nos sitúa en un precio de 4,338,39 euros/m2.

Desde el inicio de la legislatura no han sido pocas las iniciativas que hemos presentado desde nuestro Grupo mostrando la preocupación por la situación. Por otro lado, cómo desde este Ayuntamiento y la sociedad de Etxegintza se están abordando propuestas para facilitar el acceso a la vivienda al conjunto de los donostiarras.

Tenemos una ciudad que envejece y no logra retener a sus jóvenes. Los últimos estudios demográficos demuestran que San Sebastián y el conjunto del País Vasco sigue una línea

Autonomia Erkidegoak egonkor dirau azken 30 urteotan, eta ez dirudi hazkunderik batere gertatuko denik.

estable en los últimos 30 años, sin visos de crecimiento alguno.

Horregatik, adinekoentzako etxebizitzak zer kokalekutan egin daitezkeen aztertzeko ekimenak sustatzen ere ahalegindu gara Talde Popularrekook. Zahartzen ari den biztanleria sektore horrek, gainera, programa bereziak behar ditu, modua eman diezaioten norberaren etxebizitzatik alde egin behar ez izateko eta horrek aurre egin ezin izateko besteko ahalegin ekonomikoa ez eragiteko.

Es por ello que desde nuestro Grupo, también hemos intentado impulsar inciativas que estudien diversas ubicaciones para la ejecución de proyectos de vivienda para mayores. Este sector de la población que envejece, además, necesita de programas que les permita no abandonar su vivienda y que esto no les suponga un esfuerzo económico, que no puedan afrontar.

Arlo horretan jarduteko, baditugu programak, tresnak, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eta ordenantzak (batzuk berrikuste fasean), baina ez diote egoki erantzuten Donostian bizi dugun egoerari.

Para actuar en este ámbito disponemos de programas, herramientas, un Plan General de Ordenación Urbana y Ordenanzas, algunas en revisión, que no están respondiendo adecuadamente a la situación que se vive en San Sebastián.

Eskatua dugu gaurkotu dadila etxebizitza eskatzen dutenen zerrenda, gaur egungo datuak edukitzeko; eta gure araudia oraindik ez dago egokituta Etxebizitzaren Lege berrira, ez hura garatzeko arauetara, nahiz eta horiek gure Udaleko etxebizitza politikei eragin egingo dien.

Hemos solicitado que se actualice la lista de demandantes de vivienda  para tener el dato a día de hoy, queda pendiente adaptar nuestra normativa a la reciente Ley de Vivienda,  y su desarrollo normativo que va a afectar a las políticas de vivienda de nuestro ayuntamiento.

Alokabide programa ere badugu, hutsik dauden etxebizitzak mugiaraztea duena helburu, dagokien funtzio soziala bete dezaten.

También disponemos de un programa Alokabide, que tiene por objeto principal movilizar vivienda vacía para que ésta pueda cumplir con su función social.

Etxegintzaren memorian adierazten denez, etxebizitzak alokatzeko gehieneko prezio bat ezartzea kaltegarria ere izan daiteke, programa horretara etxebizitzak erakartzeko oztopo gerta daitekeelako. Gainera, esaten du programa horrek dirudienez goia jo duela; gaur egun, 322 bat etxebizitza huts mugiarazten ditu. Era berean, adierazten du

La memoria de Etxegintza señala que establecer un precio máximo para el alquiler de una vivienda puede resultar contraproducente para atraer vivienda a este programa. Además indica, que este programa parece haber llegado a un punto en el que ha se ha quedado estancado, siendo entorno a 322 las viviendas vacías movilizadas en la actualidad. Así mismo,

hartutako zenbait neurrik —hala nola etxebizitza hutsei Ondasun Higiezinen gaineko Zerga handiagoa aplikatzea, edota etxebizitza hutsak birgaitzeko laguntzak ematea, Alokabide programan sartuz gero— ez dutela espero zen eragina izan.

señala que medidas como un mayor IBI para las viviendas vacías o las ayudas para rehabilitar viviendas vacías, que pasen a formar parte del programa Alokabide, no han tenido el efecto esperado.

Gainera, azkenaldian egiaztatu dugunez, Alokabide zerbitzuak ez ditu bitarteko egokiak, zerbitzua bizkor eta modu eraginkorrean eman ahal izateko beharko lituzkeenak.

Además, este servicio de Alokabide en los últimos tiempos hemos comprobado que no dispone de los medios apropiados para poder dar un servicio ágil y eficiente.

Baditugu ordenantza arautzaileak, haietako bat eraikin eta etxebizitzak birgaitzeari bideratua, eta hura berrikusten ari gara, indarrean daramatzan bi urteetan ez diolako egoki erantzun eskariari, baliabide ekonomiko murritzak direla eta; horrenbestez, lehentasunak berrezarri behar ditugu diru laguntzetan. Gainera, duela 6 urte ordenantza bat onartu genuen, lokalak etxebizitza bihurtzeko eta etxebizitzak banatzeko.

Contamos con Ordenanzas reguladoras, una de ellas orientada a la rehabilitación de edificios y viviendas, que se está revisando ya que en sus dos años de vigencia no responde adecuadamente a la demanda existente por la limitación de recursos económicos disponibles, por lo que debemos reorientar las prioridades a subvencionar. Además aprobamos hace 6 años una Ordenanza de conversión de locales en vivienda y de segregación de viviendas.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra 2010eko ekainaren 25ean onartu zen behin betiko. Ia sei urte pasatu dira onartu zenetik. Plan horretan, 18.000 etxebizitza eraikitzea zegoen aurreikusita, eta sei urte igaro diren honetan, badakigu Auditz Akular eta Antondegi, esaterako, ez direla gaur-gaurkoz garatu, eta ez dirudi legealdi honetan ere garatuko direnik.

El Plan General de Ordenación Urbana se aprobó de forma definitiva el 25 de Junio de 2010. Han pasado casi seis años desde su aprobación. Dicho Plan contenía la construcción de unas 18.000 viviendas de las cuales sabemos que pasados 6 años operaciones como Auditz Akular y Antondegi no se han desarrollado por el momento, ni parece que en la actual legislatura se vayan desarrollar.

Hainbat xedapen aldaketa onartu dira, eta plan bereziak, plan partzialak eta xehetasun azterlanak. Gobernu Taldeak hainbat hirigintza garapen jasotzen ditu programan, baita hiriko zenbait gune birgaitzea eta berroneratzea ere. Baina ez dugu ikusi horiek gauzatu direnik, eta, horien inguruan

Se han aprobado diferentes modificaciones puntuales, planes especiales, planes parciales y estudios de detalle. El Equipo de Gobierno contempla en su programa diferentes desarrollos urbanísticos, además de la regeneración y rehabilitación de entornos de la ciudad, los cuales no hemos visto plasmados y

galdetu izan dugunean, antzeman dugu ez dutela garapen edo gauzatze epe zehatzik.

cuando hemos preguntado por ellos, vemos que no tienen un periodo de desarrollo o ejecución concreto.

Aurkeztutako proiektu horien adibide dugu, besteak beste, Uliako Mintegietakoa. Ez da, gure ustez, gazteentzako apartamentuak eraikitzeko lekurik egokiena, baina gure iritzia gorabehera, kontua da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak errekurtso bat baietsi zuela eta Udalak aurreikusitako hirigintza antolamendua baliogabetu duela, ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko txostenik egin ez zelako.

Como ejemplo de estos proyectos presentados, tenemos Viveros de Ulía, que aún no siendo a nuestro entender, la zona idonea para la cosntrucción de apartamentos para jóvenes, la sala de lo contencioso administrativo del TSJPV estimó un recurso y ha anulado la ordenación urbanística prevista por el Ayuntamiento debido a que no se llevó a cabo un informe de evaluación ambiental.

Beste proiektuetako bat, Gobernu Taldeak legealdiaren hasieran aurkeztu eta oraindik zain gaudena, Infernua deritzon ingurua birgaitzea zen; han 500 etxebizitza egingo omen ziren. Orain bertan, HAPO aldatzeko espedientea formalizatzeko izapideak egiteke daude, eta ez dirudi urtea amaitu baino lehen ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko txostena amaituko denik.

Otro de los proyectos, que aun tenemos a la espera y que fue presentado por el Equipo de Gobierno al inicio de sus legislatura, fue la regeneración del entorno del “Infierno”, donde se contarían con 500 viviendas. A estas fechas, quedan trámites pendientes para formalizar el expediente de modificación del PGOU, y no se espera antes de final de año que se concluya el informe mediambiental requerido.

Aipatu ditugun horiek bi adibide baino ez dira. Donostian etxebizitzaren arloan plangintzarik eza da nagusi.

Estos son sólo dos ejemplos de la falta de planificación que Donostia/San Sebastián sufre en cuestión de vivienda.

Hori guztia dela eta, Talde Popularrak honako EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin:

Es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para su debate en Pleno:

Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio ahalik lasterren aurkeztu dezala Etxebizitza Plan Integral bat eta zehaztu dezala plan horretan Gobernu Taldeak zuzkidura erabilerarako zer lursaila erabiltzeko asmoa duen gazte eta adinekoentzako apartamentuak eraikitzeko, bai eta kronograma bat ere, legealdi honetan

El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que a la mayor brevedad, presente un Plan Integral de Vivienda, que incluya las parcelas de uso dotacional que el Equipo de Gobierno piensa utilizar para la construcción de apartamentos para jóvenes y mayores. Así como un cronograma con los desarrollos urbanísticos que

hasi asmo dituen hirigintza garapenak finkatuta.

tienen previsto iniciar a lo largo de este mandato.

Donostia, 2017ko urriaren 24a

En Donostia/San Sebastián a 24 de Octubre 2017

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz Grupo Popular“.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**4. Ebazpen Proposamena, turismoa Donostiaren motor ekonomiko izateari buruzkoa.**

“Talde Popularreko bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 55. artikuluan oinarrituta, turismoa Donostiaren motor ekonomiko izateari buruzko ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkeztu du, Udalbatzan aztertua izan dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Europako turismoaren sorlekuetako bat da. Kokaleku pribilegiatua, xarma naturala, jende abegitsua, eta gure hiriko ohiturak eta izaera faktore erabakigarriak izan ziren XIX. mendearen lehen erdian

**4. Propuesta de resolución presentada por el Grupo PP sobre el turismo como motor económico de San Sebastián.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, sobre el turismo como motor económico de San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

San Sebastián es una de las cunas del turismo en Europa. Nuestra posición privilegiada, los encantos naturales, la hospitalidad de sus gentes, las costumbres y el carácter de nuestra ciudad fueron factores decisivos por los que la

Espainiako errege familia gurera etortzen hasteko, helmuga turistikotzat hartuta. Gero trena eta goraldi turistikoa iritsi ziren, eta garapen nabarmena izan zuen Donostiak.

Familia Real española y su corte comenzaron a visitar nuestra ciudad como destino turístico en la primera mitad del siglo XIX. La posterior llegada del tren y el auge del turismo ayudaron a conseguir un desarrollo notable de San Sebastián.

Beraz, gure hirian errotuta dago turismo tradizioa, eta horrek argi eta garbi azaltzen du turismoaren industriak garrantzi handia izan duela Donostian. Prozesu horretan faktore erabakigarria izan zen gure arbasoen ikuspegia; izan ere, errege familiaren bisitak aprobetxatu zituzten tokiko ekonomia sustatuko eta elikatuko zuen ehuna eta hainbat jarduera sortzeko.

Por tanto, el arraigo de la tradición turística en nuestra ciudad es una de las claves que subrayan la importancia que la industria turística ha tenido en San Sebastián. La visión de nuestros antepasados para aprovechar la visita real y para generar un tejido y una serie de actividades que promocionaran y dieran sustento a la economía local es un factor decisivo en este proceso.

Gizon-emakume haien etorkizun senik gabe, Donostia ez litzateke izango gaur egun dena, eta gaur egun ezinbesteko ditugun hainbat ekitaldi ez ziren sortuko: Aste Nagusia, zezenetan eta su artifizialetan oinarrituta sortua; Euskal Jaiak, arrauna eta pilota erakargarri zirela; Zinemaldia eta Jazzaldia; Musika Hamabostaldia… Ez genituzkeen izango, besteak beste, hipodromoa, kasinoa (gaur egungo udaletxea), antzokiak, zinema-aretoak, dantzalekuak eta goi-mailako dendak.

Sin la visión de futuro de estos hombres y mujeres, San Sebastián no sería lo que hoy es, y no contaríamos con eventos imprescindibles en la actualidad, como la Semana Grande -cuyo origen fueron los toros y los fuegos artificiales-, las Fiestas Vascas (con el remo y la pelota como grandes reclamos), los Festivales de Cine o de Jazz; o la Quincena Musical. Ni hubiéramos contado con un Hipódromo, un Casino (actual Ayuntamiento), teatros, cines, salas de fiestas, comercios de nivel, etc.

Oinarri horiek gabe ezingo genituen garatu gure ostalaritza eta gastronomia, gaur egun mundu osoan erreferentea dena (Donostia da metro koadroko Michelin izar gehien dituen munduko bigarren hiria). Horrez gainera, kirolaren eta kulturaren alorreko hainbat ekitaldi ez genituzke izango, eta horiek ere erreferentziazkoak dira nazioartean.

Sin esas bases no se hubiera podido desarrollar nuestra exitosa industria hostelera y gastronómica, referente a nivel mundial (San Sebastián es la segunda ciudad del mundo con más estrellas Michelín por metro cuadrado); ni tendríamos muchos de los eventos deportivos y culturales que son, también referencia, en el orden internacional.

Alabaina, beste faktore batzuk kontra dauzkagu, gure inguruko beste helmuga

Sin embargo, nos penalizan otros factores en comparación con otros destinos, más o menos

batzuekin alderatuta. Esate baterako, gure azpiegiturek mugikortasun eskasa ematen dute, bai lurrez, bai itsasoz, bai airez: gure aireportuaren tamaina eta eskaintza ez dira lehiakorrak. Ez daukagu portu erakargarririk gurutzaontziak etortzeko. Tren bidezko konexioak txarrak eta motelak dira; orain sarea berritzen ari dira, baina mende bat baino gehiago zuen.

Gizarteek aurrera egiten duten bitartean, gure hirian erakundeek inbertsioen aldeko apustu irmoa egitea falta zaigu, batez ere gertuen ditugun erakundeen aldetik: Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.

EAEko erakundeek azken urteotan garatutako turismo estrategia urria izan da, eta gure hiriari tratu txarra eman dio. Eta ez dugu ahaztu behar Euskadiko hiriburu turistikoa dela Donostia. Gure erakundeek ez dute ondo zaintzen Donostia, eta horren ondorioak argi eta garbi ageri dira.

Gure lurraldean kulturaren kudeaketa benetan txarra izan da azken hamarkadetan; inprobisatuz ibili dira, jarduteko irizpide argirik gabe. Horrek eragileen arteko koordinazio falta ekarri du, eragile horietako asko baztertuta geratu dira, gizarteari begira zabalik eta abangoardian egotea falta izan da. Orobat, gure hirian ostatalekuak falta dira, eta arazo hori konpontzen hasi da orain. Izan ere, ezin ditugu alde batera utzi ETAren terrorismoak hirian eta gure turismoan eragin dituen ondorioak, horixe izan baita gure lurraldea azken hamarkadetan astindu duen orban gaiztoena, baina, zorionez, euskal gizarteak arazo hori gainditu du.

Ekonomia Bultzatzeko zinegotzi

cercanos. Por ejemplo, nuestras infraestructuras, que proporcionan, a día de hoy, una deficiente movilidad por tierra, mar y aire: nuestro aeropuerto no es competitivo por dimensiones ni por oferta. No contamos con un puerto atractivo para el destino de cruceros. Las conexiones por tren son malas y lentas, con una red que ahora se está renovando, pero que tenía más de un siglo.

Mientras las sociedades avanzan, nuestra ciudad adolece de una apuesta inversora firme por parte de las instituciones, sobre todo de las más cercanas, como son el Ayuntamiento, la Diputación de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco.

La estrategia turística desarrollada por las Instituciones vascas en los últimos años ha sido, asimismo, escasa y maltrata a nuestra ciudad que es -no lo olvidemos- la capital turística de Euskadi. San Sebastián no está mimada por nuestras instituciones, y eso tiene claras consecuencias.

La gestión cultural en nuestro territorio, en las últimas décadas, ha sido realmente mala, a golpe de improvisación y sin un criterio claro de actuación, lo que ha originado una falta de coordinación entre los agentes, la exclusión de muchos de ellos, falta de apertura a la sociedad y de vanguardia. La falta de alojamientos en nuestra ciudad es, también, un problema añadido que empieza ahora a corregirse. Porque tampoco podemos obviar los efectos que sobre la ciudad, y sobre nuestro turismo, ha producido el terrorismo etarra, la peor lacra que ha sacudido a nuestra tierra en las últimas décadas y que, afortunadamente, la sociedad vasca ha logrado vencer.

Según datos del Barómetro de Economía

ordezkaritzak egindako Hiri Ekonomiaren Barometroan jasotako datuen arabera, gure hiriko barne produktu gordinak % 2,4ko hazkundea izan du, 2015eko datuekin alderatuta, eta 7.300 milioi eurokoa da. Turismoa eta sektore soziosanitarioa gailurrean daude (% 13), eta hezkuntza eta merkataritza ere giltzarrizko sektoreak dira tokiko ekonomian.

Urbana, elaborado por la Concejalía de Impulso Económico, el Producto Interior Bruto de nuestra ciudad en el año registró un crecimiento del 2,4% respecto al 2015, situándose en los 7.300 millones de euros. El turismo y el sector sociosanitario, con un 13% del PIB, encabezan el ránking, con la educación y el comercio como otros sectores claves de la economía local.

Turismoak 15.000 pertsona inguruari ematen die enplegua Donostian, eta urtean 950 milioi euro inguru sortzen ditu. Zenbateko hori turismoak Gipuzkoa osoan sortzen duenaren erdia da, eta EAE osoan sortzen duenaren (4.100 milioi euro) ia laurdena. Datu horiek egiaztatzen dute Euskadiko hiriburu turistikoa dela Donostia. Turismoa Gipuzkoako barne produktu gordinaren % 7,5 da; Bizkaian % 5,2 da, eta Araban, berriz, % 5,1. Gastuari erreparatuta, 2015ean gastu guztiaren % 44,3 Bizkaian egin zen, Gipuzkoan % 41,6 eta Araban % 14,1.

El turismo da empleo en San Sebastián a unas 15.000 personas, y genera en la ciudad unos 950 millones de euros anuales, la mitad que en toda Gipuzkoa; casi una cuarta parte que lo que genera el turismo en todo el País Vasco (unos 4.100 millones de euros). Estos datos avalan la posición de San Sebastián como capital turística de Euskadi. El peso del turismo en el PIB de Gipuzkoa es del 7,5%, por el 5,2% y el 5,1% de Bizkaia y Alava. En términos de gasto, en el año 2015, Bizkaia representó un 44,3%, seguida de cerca por Gipuzkoa, con el 41,6%, y por Alava, con 14,1% del total.

Gaur egungo udal agintarien gobernu programak orrialde eskas bat ematen dio turismoari. Orrialde horretan bost helburu adierazten dira egungo agintaldirako:

El Programa de Gobierno de los actuales regidores municipales apenas dedica una página al turismo. En ella, se describen cinco objetivos para el presente mandato:

• Turismoaren kalitatearen arloan kantauriar itsasalde osoko lidergoa berreskuratzea.
• Turismo bulegoa udaletxera lekualdatzea bi urteko epean (bete da).

• Kirol ekitaldiei lotutako publiko berriak erakartzea.
• Bisitariei eskaintzeen zaizkien zerbitzuak hobetzeko teknologia aurreratuak sartzea.

• Sektorean diharduten eragileen arteko lankidetza.

• Recuperar el puesto líder en materia de calidad turística de toda la cornisa cantábrica.
• Trasladar la Oficina de Turismo al Ayuntamiento en el plazo máximo de dos años (ya cumplido).
• Tracción de nuevos públicos vinculados a los eventos deportivos.
• Incorporación de tecnologías avanzadas para mejorar los servicios ofrecidos a quienes nos visitan.
• Colaboración entre los distintos agentes implicados en el sector.

Helburu horiek guztiak ezinbestekoak dira, gure iritziz, baita duela hilabete batzuk onetsitako 2017-2021 Turismo Gida Planeko edukiak ere, Donostiaren berezkotasuna eta berezitasuna hutsalduko ez duen turismo orekatua, sostengagarria eta kalitatezkoa lortzeko bidean aurrera egiteko.

Todos estos objetivos no pueden ser sino compartidos desde nuestro punto de vista, así como los contenidos en el Plan Director de Turismo 2017- 2021 -aprobado hace unos meses-, para avanzar hacia un turismo equilibrado, sostenible y de calidad que no desvirtúe su esencia y singularidad.

Baina helburu horiek, baita beste batzuk ere, osotasun baten zati izan behar dute. Gure turismo eta hazkunde eredua sendotzeko estrategia global baten zati izan behar dute, kantitatea ez ezik, kalitatea ere aintzat hartuta. Horregatik, behar-beharrezkoa da erakundeek turismoaren industria benetako motor ekonomikotzat hartzea. Enplegua sortzen du, gizarteari aberastasuna ematen dio, herritarrei ez die eraso egiten, osatu eta aberastu baizik, eta erabat integratzen da gure ehun sozial eta ekonomikoan. Daukagunaz harro gaudelako, mundu osoko herritarrak dastatzera eta partekatzera etor daitezela nahi dugu.

Pero dichos objetivos, y algunos más, deben formar parte de un todo. Deben formar parte de una estrategia global de consolidación de nuestro modelo turístico y de crecimiento no sólo en cantidad, sino en calidad. Por ello, se hace necesario que, desde las Instituciones, se considere a la industria turística como un verdadero motor económico que produce empleo, que genera riqueza para la sociedad, que no invade al ciudadano, sino que lo complementa y enriquece, y que se integra penamente en nuestro tejido social y económico. Porque estamos orgullosos de lo que tenemos y queremos que ciudadanos de todo el mundo vengan a probarlo y a compartirlo.

Horiek horrela, Donostiak erronka handiak ditu turismoaren arloan, berriro erreferentziazko nazioarteko helmuga izateko, aurreko mendeetan izan zen bezala. Langileei kalitatezko enplegua eman behar die. Gero eta lehiakorragoa eta zorrotzagoa den turismoaren beharrak asetuko dituen eskaintza sortu behar du. Azpiegiturak hobetu behar ditu, hala nola portua eta aireportua, eta horretarako EAEko erakundeen inplikazio handiagoa behar da; horrek Donostia eta donostiarrak zigortzen ditu. Gaur egun hiriak dituen ostatu aukerak zabaltzean asmatu behar du.

En este orden de cosas, San Sebastián tiene importantes desafíos por delante en materia turística para volver a ser un destino internacional de referencia, como lo ha sido durante décadas en los siglos pasados. Debe ofrecer un empleo de calidad a sus trabajadores. Debe generar una oferta que satisfaga las necesidades de un turismo cada vez más exigente y competitivo. Debe mejorar sus infraestructuras, como el puerto y el aeropuerto, que exigen una mayor implicación de las instituciones vascas, lo que penaliza a la ciudad y a los donostiarras. Debe acertar a la hora de ampliar la oferta de alojamiento que, a día de hoy, presenta la ciudad.

Hotel berriak jartzea ona izango da, baina Donostiako Udalak oporretako ostataleku

La instalación de nuevos hoteles será bienvenida; pero es necesario que el

turistikoen errealitateari erantzun egokia emateko gai izan behar du, alderdi guztiei segurtasun juridiko eta soziala emateko, orain arte udal agintariek gai hori kudeatzeko egin duten bidea alde batera utzita.

Ayuntamiento de San Sebastián sea capaz de dar una respuesta acertada a la realidad del alojamiento turístico vacacional, que dé seguridad jurídica y social a todas las partes; y no como se ha gestionado, hasta ahora, este asunto por parte de los regidores municipales.

Donostiako Udalak eta gainerako erakundeek, elkar hartuta, industria jardueraren puntako sektoretzat hartu behar dute turismoaren sektorea, eta hori kontuan hartuta jokatu behar dute. Orain dela bi urte arte, asko jota, Eusko Jaurlaritzaren aburuz, turismoaren sektoreak ez zuen arreta berezirik merezi EAEko ekonomian. Industriari ematen zaio lehentasuna. Ez dutelako turismoa benetako industriatzat hartzen. Alabaina, Donostian eta Euskadin, oro har, turismoaren industriak gora egiten du, eta motor ekonomiko gisa duen tokia erreibindikatzen du.

El Ayuntamiento de San Sebastián, en comunión con el resto de instituciones, deben considerar al sector turístico como un sector puntero de la actividad industrial, y obrar en consecuencia. Hasta hace apenas dos años, para el Gobierno Vasco, el sector turismo no merecía una atención especial en el conjunto de la economía vasca. Prima la industria. Porque no consideran al turismo como una verdadera industria. Sin embargo, en San Sebastián, y en el conjunto del País Vasco, crece la industria turística y, con ello, reivindica su lugar como motor económico.

Gure hiriaren kasuan, turismo enpresak sustatzeko eta sortzeko ezinbestekoa da erakundeen laguntza, baita tokiko merkataritza bultzatzea eta dinamizatzea ere. Horrez gainera, negozio aukera berriak aprobetxatu behar dira, eragileekin, unibertsitateekin, zentro teknologikoekin eta abarrekin lankidetzan. Hirian egiten diren hainbat ekitaldik jendea erakartzeko duten gaitasunari etekina atera behar zaio, tartean dauden eragile guztien arteko koordinazio hobea sortzeko eta bisitariek egonaldi hobea izateko, baita gure ehunarentzat baliabide gehiago sortzeko ere. Gure hiriaren estrategia eta kultura kudeaketa optimizatu behar dira, eskaintza hobetzeko.

En el caso de nuestra ciudad, es imprescindible el apoyo institucional al fomento y creación de empresas turísticas, junto con el apoyo y dinamización del comercio local. Además de ello, es necesario aprovechar las nuevas oportunidades de negocio, en colaboración con los agentes, las Universidades, los centros tecnológicos, etc. Se necesita aprovechar la tracción de gente a los diferentes eventos que acoge la ciudad para generar una mayor coordinación entre todos los agentes implicados y una mejor estancia al visitante, así como más recursos para nuestro tejido. Es necesaria una optimización de la estrategia y de la gestión cultural de nuestra ciudad para una mejora en la oferta.

Erronka ugari ditugu aurrean, baina optimismora bideratzen gaituzten hainbat elementu dauzkagu. Funtsezkoena,

Muchos son los retos que se presentan por delante, pero tenemos elementos que nos invitan al optimismo. Lo esencial, el escenario.

agertokia. Baina garrantzitsuena da argi eta garbi edukitzea hoberenak izatea dela gure helburua, eta gure hiriak nazioarteko lehen mailako industria turistikoa sortzeko behar dituen faktore guztiak egoki antolatzea.

Pero lo importantes es tener claro el objetivo de querer ser los mejores, y poner en orden todos los factores que necesita nuestra ciudad para generar una industria turística de primer orden a nivel internacional.

Horiek horrela, Talde Popularrak honako ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkezten du, osoko bilkuran azter dadin:

En vista de lo que antecede, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para su debate en Pleno:

1.- Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio 6 hilabeteko epean aurkez dezala Donostiako Sustapena aitzindari den dokumentu estrategiko bat, gaur egungo 2017-2021 Turismo Gida Planean oinarritua. Dokumentu horretan, tokiko industria turistikoak, gure hiriaren motor ekonomikoa den aldetik, sor ditzakeen negozio aukera berriak aztertu behar dira. Halaber, enpresa berrien sorrera bultzatu behar da, lehendik daudenak koordinatu eta kohesionatu behar dira, eta gure lurraldeak talentua atxiki eta erakarri behar du.

1.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que presente, en el plazo de 6 meses, un documento estratégico (liderado por Fomento de San Sebastián, y con base en el actual Plan Director de Turismo 2017-2021) en el que se analicen las nuevas oportunidades de negocio que se pueden generar a través de la industria turística local, como motor económico de nuestra ciudad, que impulse la creación de nuevas empresas, coordine y cohesione a las ya existentes y retenga y atraiga talento a nuestro territorio.

2.- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Udalaren jarrera betetzeko formula bila dezala, Basquetour eremuetako bat Donostiako Miramar jauregian kokatze aldera.

2.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que encuentre la fórmula para dar cuplimiento al posicionamiento del Pleno de este Ayuntamiento, y materializar la ubicación de alguna de las áreas de Basquetour en el Palacio de Miramar de San Sebastián.

Donostian, 2017ko urriaren 24an

En Donostia-San Sebastián a 24 de Octubre 2017

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularreko bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz Grupo Popular“.

**BERTAN BEHERA TRANSAKZIONATU DELAKO.**

**DECAE POR TRANSACCIÓN.**

---------------

**5. Ebazpen proposamena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Donostiako etxebizitza arazoari buruzkoa.**

“Donostiako Udalbatzari:

EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andereak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikuluaren babesean, eta Udalbatzak aztertu behar duen Politika Orokorrari buruzko Urteko Adierazpenari begira, aurkezten du honako Ebazpen Proposamen hau, Donostiako etxebizitza arazoari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Etxebizitza eskuratzea donostiarrak gehien kezkatzen dituen arazoetakoa da, herritarren pertzepzioaz egindako inkestak berriro ere agerian utzi duen bezala. Egia da, zoritxarrez, honako hau ez dela kontu berria donostiarrentzat -eta bereziki, etxebizitza batera sartzeko ezintasuna dela dela-eta Donostian bertan, kanpora joan beharrik gabe, bizimodu independentea garatzea gero eta zailago duten ehunka gazteentzat-.

Azken hilabeteetan beste faktore bat gaineratu zaio horri guztiari: pisu turistikoek etxebizitzen alokairuaren merkatuan zein haren prezioan eta baldintzetan duten eragina (eskaintzaren jaitsiera, prezioaren igoera, urte osoz etxebizitza alokairuan hartzeko baldintzak gogortzea...). Nabaria da

**5. Propuesta de resolución presentada por el Grupo EH BILDU relativa al problema de acceso a la vivienda.**

“AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Portavoz del grupo municipal EH Bildu, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en el Pleno sobre la Declaración Anual de Política General la siguiente Propuesta de Resolución, relativa al problema de acceso a la vivienda.

JUSTIFICACIÓN

El acceso a la vivienda es uno de los problemas que más preocupa a la ciudadanía donostiarra tal y como ha quedado reflejado nuevamente en la última encuesta realizada en Donostia sobre la percepción que tiene la ciudadanía. Es cierto que, desgraciadamente, no es una cuestión que resulte novedosa para la ciudadanía donostiarra -y más específicamente para los centenares de jóvenes que ven cada vez más difícil desarrollar un proyecto de vida de forma independiente y sin tener que ser expulsados de su ciudad por la imposibilidad de acceder a una vivienda-.

En los últimos meses, por otra parte, se ha unido a todo lo anterior el efecto que la eclosión de los pisos turísticos está teniendo, tanto sobre el mercado residencial de alquiler, como sobre el precio y las condiciones del mismo (disminución de la oferta, aumento del precio, endurecimiento de las condiciones para lograr un alquiler por

hau ez dela, berez, Donostiako arazoa, agintaldi baten iraupena gainditzen duela eta instituzio eta erakunde guztien artean koordinatu eta ikuspegi globalago batez landu beharreko gaia dela.

Hain zuzen ere, Urumeako uholdeen etengabeko arazoak konpontzeko eta bertan esku hartzeko asmoz, Urumeako Erakunde Arteko Mahaiaren sorrera bultzatu zen aurreko agintaldian, non gaian zerikusia duten instituzio guztiek parte hartzen duten elkarrekin jarduteko. Era berean, auzotarren ordezkaritza bati sarbidea ematea ere jo zen beharrezkotzat, modu aktiboan parte har zezaten.

Esperientzia hori aprobetxatu behar dela uste dugu. Ildo horretatik, ezinbestekotzat hartzen dugu "Donostiako Etxebizitzaren Behatokia" eratzea, urtero ondorengoa aztertzea eginkizun izango lukeena: etxebizitzaren salmenta eta alokairu prezioen bilakaera, alokairuaren merkatuaren eskaintza eta haren baldintzak, Alokabide programen kudeaketa (bai Donostiako Etxegintzarena bai Visesarena), hutsik dauden etxebizitzen parkea, haiek merkaturatzea errazteko neurriak, administrazio publikoek erabilerarik gabe dituzten eraikinen kudeaketa, etxebizitza galtzeagatik baztertze arriskuan dauden familiei laguntzeko programak inplementatzea eta haiei jarraipena egitea eta, beharrezkoa bada, aldatzea, alokairua ordaintzeko laguntza programak inplementatzea...

Horretarako, eragile guztiek parte hartu behar dute. Ildo horretatik, Donostiako

años enteros...). Es evidente que no se trata de un problema estrictamente local, que trasciende la duración de una legislatura y que debe ser abordado desde una perspectiva más global y coordinada entre todas las instituciones y entidades.

Precisamente al objeto de actuar y resolver los problemas periódicos de inundabilidad derivados de las crecidas del Urumea, la pasada legislatura se impulsó la creación de la Mesa Interinstitucional del Urumea con la presencia de todas las instituciones afectadas al objeto de establecer un plan común de actuación. Al mismo tiempo se consideró necesario dar entrada en la misma a una representación de los vecinos de forma que pudieran participar activamente.

Creemos que la experiencia debe ser aprovechada. En ese sentido, entendemos imprescindible que nos dotemos de un “Observatorio de la vivienda en Donostia” que se encargue de estudiar anualmente el comportamiento del precio de la vivienda, tanto en alquiler como en venta, la oferta del mercado de alquiler y las condiciones del mismo, la gestión de los programas Alokabides en nuestra ciudad (tanto el de Donostiako Etxegintza como el de Visesa), el parque de viviendas vacías, la adopción de medidas eficaces que permitan que afloren al mercado, la gestión de edificios sin uso de las distintas administraciones públicas, la implementación de programas de ayuda a las familias en riesgo de exclusión por perdida de vivienda o el seguimiento, y en su caso, la modificación de los mismos, la implementación de programas de ayudas al pago de alquiler...

Para ello, creemos necesaria la participación de todos los agentes. En ese sentido,

Etxebizitzaren Aholku Kontseilua sortzea ere beharrezkoa dela uste dugu; hain zuzen ere, aholkua emateko erakunde bezala, etxebizitza duina eskuratu eta mantentzeari dagokionez.

consideramos también necesario dar pasos para la creación del Consejo Asesor de la Vivienda en Donostia, como consejo asesor en materia de vivienda en la ciudad, tanto en lo que se refiere al acceso a una vivienda digna, como en lo que refiere a su mantenimiento.

Hori dela-eta, hauxe proposatzen du EH Bildu udal taldeak:

A la vista de todo ello, el grupo municipal EH Bildu propone la siguiente

EBAZPEN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1.- Donostiako Udalbatzak eskatzen die alkateari eta Udal Gobernuari beharrezko legezko urratsak eman ditzatela Donostiako Etxebizitzaren Behatokia sortzeko, Udalaren edo Donostiako Etxegintzaren mendekoa. Eginkizunen artean, behatoki honek hiriko etxebizitzen bilakaera aztertuko luke: bai alokairukoena bai jabetzakoena.

1.-El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Alcalde y al equipo de gobierno a dar los pasos legales necesarios al objeto de crear el Observatorio de la Vivienda de Donostia, dependiente o bien del Ayuntamiento o bien de Donostiako Etxegintza. Dicho observatorio tendrá entre sus funciones la de de estudiar la evolución de la vivienda, tanto de alquiler como en propiedad, de la ciudad.

2.- Era berean, alkateari eta Udal Gobernuari eskatzen die beharrezko legezko urratsak eman ditzatela Donostiako Etxebizitzaren Aholku Kontseilua sortzeko bidean. Kontseilua Eusko Jaurlaritzako, Visesako, Udal Gobernuko, Donostiako Etxegintzako, udal talde guztietako, Stop Desahucios taldeko, Higiezin Jabetza Agenteen eta beste kolektibo sozial batzuetako ordezkariek osatuko lukete. Eginkizunen artean, Donostiako Etxebizitzaren Aholku Kontseiluak hirian ezar daitezkeen etxebizitza alorreko politikei buruzko aholkularitza foro bihurtzeko ardura izango luke.

2.- Asimismo se insta al Alcalde y al equipo de gobierno a dar los pasos legales oportunos en la línea de la creación del Consejo Asesor de la Vivienda en Donostia. Dicho consejo estaría compuesto por representantes del Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco, Visesa, Gobierno Municipal, Donostiako Etxegintza, todos los grupos municipales, Stop Desahucios, Agentes de la Propiedad Inmobiliaria y otros colectivos sociales cuyo objeto esté relacionado con la problemática de la vivienda. El Consejo Asesor de la Vivienda en Donostia tendrá entre sus funciones la de constituirse en foro asesor entorno a las políticas que en materia de vivienda puedan implementarse en la ciudad.

Donostian, 2017ko urriaren 24an

Donostia, 24 de octubre de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga

Donostiako EH Bildu udal taldeko bozeramailea".

Portavoz del grupo municipal EH Bildu de Donostia".

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**5. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**5. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**6. Ebazpen proposamena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Donostiako merkataritza txikia sustatu eta lehenetsi beharrari buruzkoa.**

**6. Propuesta de resolución presentada por el Grupo EH BILDU relativa a la necesidad de fomentar y priorizar el pequeño comercio donostiarra.**

"Donostiako Udalbatzari:

"Al pleno del ayuntamiento de donostia / san sebastián

EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andereak,

La portavoz del grupo municipal EH Bildu, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, al amparo del

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikuluaren babesean, eta Udalbatzak aztertu behar duen Politika Orokorrari buruzko Urteko Adierazpenari begira, aurkezten du honako Ebazpen Proposamen hau, Donostiako merkataritza txikia sustatu eta lehenetsi beharrari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Merkataritza Donostiaren historiaren eta izaeraren parte da. Dendari txikiak, merkataritza tradizionala eta gertuko dendak Donostiaren ehun ekonomikoaren eta sare sozialaren zati ezinbestekoak izan dira luzaroan: aberastasuna sortu eta banatzen dute, funtsezko zerbitzua eskaintzen diete donostiarrei eta behar-beharrezkoak dira hiri eta auzo biziak izateko. Esan dezagun garbi dendari txiki gabe hiri eta auzo ilun eta tristeagoak izango genituzkeela eta donostiarron bizi kalitateak okerrera egingo lukeela. Eta esan dezagun garbi, baita ere, Donostiakoa kalitatezko merkataritza izan dela: erreferentzia, inguruko udalerrietako eta lurraldeetako herritar askorentzat. Dudarik gabe, beraz, sektore hau babestea eta sustatzea eskatzen du interes kolektiboak.

Aspaldi honetan, dendari txikien sektorea gainbehera dago. Gure auzoetan ibili besterik ez da egin behar zenbat lokal dauden itxita ikusteko: Amara Berri, Egia, Altza... Datu bat ematearren, 2008tik 2015era bitartean 557 denda itxi ziren Donostian. Arrazoi ugari dago gainbehera horren atzean, baina bi nabarmentzeko modukoak dira. Batetik, merkataritza gune handiak ugaritu izana eta haiekin lehiatu beharra. Eta bestetik, internet bidezko salerosketa zabaldu izana.

artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta esta propuesta de resolución para su tratamiento en el Pleno sobre la Declaración Anual de Política General, relativa a la necesidad de promocionar y priorizar el pequeño comercio donostiarra.

JUSTIFICACIÓN

El comercio es parte intrínseca de la historia y la identidad de Donostia. El pequeño comercio, el tradicional y el de proximidad son, desde hace mucho tiempo, parte inseparable del tejido económico y de la red social de la ciudad: generan y distribuyen riqueza, ofrecen un servicio indispensable a la ciudadanía y hacen que tengamos una ciudad y unos barrios vivos. Debemos afirmar claramente que, sin el pequeño comercio, tendríamos una ciudad y unos barrios más oscuros y tristes y que las y los donostiarras verían empeorar su calidad de vida. Y debemos decir también claramente que el de Donostia ha sido siempre un comercio de calidad, referente para los municipios y territorios de alrededor. Estamos, sin duda, ante un sector a proteger y fomentar desde el punto de vista del interés colectivo.

Desde hace tiempo, sin embargo, este sector sufre un retroceso. No hace falta más que dar un paseo por nuestros barrios para observar la cantidad de locales cerrados: Amara Berri, Egia, Altza... Desde 2008 a 2015 Donostia perdió 557 tiendas. Las razones son múltiples, pero debemos destacar dos. Por un lado, la proliferación y la competencia de las grandes superficies. Y por otro, la compraventa vía internet.

Gainbeherak gainbehera, merkataritza txikia errealitate bizia da oraindik ere gure hirian. Gaur egun, Donostiako Barne Produktu Gordinaren %12 da. Hortaz, apustu sendoa egin eta egiturazko neurriak hartu behar dira, hainbat arlotan, dendari txikiek XXI. mendeko erronkei heldu ahal izan diezaieten: berrikuntza, teknologia berriak, espezializazioa... Udalarentzat lehentasun nagusietakoa izan behar du, benetan hiri iraunkor eta bizia izango badugu etorkizunean.

A pesar de todo, el pequeño comercio es una realidad viva en nuestra ciudad y representa el 12% de su PIB. Es necesario, por tanto, hacer una sólido apuesta y tomar medidas estructurales y de carácter transversal para que el pequeño comercio pueda hacer frente a los retos del siglo XXI: la innovación, las nuevas tecnologías, la especialización… Debe ser una prioridad fundamental para el Ayuntamiento, si queremos tener una ciudad sostenible y viva en el futuro.

Donostiako Udalak, aspalditik, dendari txikiei, merkataritza tradizionalari eta auzoan auzokoari laguntzeko planak eta lan ildoak ditu. Egia da neurri horiek ez direla beti koherenteak izan erakunde honek berak hartutako beste erabaki batzuekin, baina ukaezina da Donostiako merkataritza sustatzeko ahalegina egin dela Udalean. Konpromiso hori berresteko eta indartzeko garaia da, ordea. Ez da garai gozoa, inondik ere, sektore honentzat, eta etorkizuneko hiri eredua zehazteko garrantzi nabarmena duenez, Udalbatzak jarrera garbi eta sendoa agertu behar du.

El Ayuntamiento de Donostia dispone, desde hace muchos años, de planes de ayuda y líneas de trabajo en pro del pequeño comercio, del tradicional y el de cercanía. Es cierto que dichas medidas no han sido siempre coherentes con las adoptadas en otros ámbitos, pero es indudable el esfuerzo realizado desde esta institución por el fomento del comercio donostiarra. Es tiempo de renovar y fortalecer ese compromiso. El Pleno de la ciudad debe mostrar una postura nítida y sólida. Porque este sector del que hablamos no pasa un buen momento, y sin embargo, es vital para el modelo de ciudad que queremos construir.

Honegatik guztiarengatik, EH Bildu udal taldeak honako ebazpen proposamen hau egiten du:

Por todo ello, el grupo municipal de EH Bildu propone la siguiente propuesta de resolución.

EBAZPEN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1-Donostiako Udalbatzak, hiri eredu iraunkor eta bizia izateko, sektore ezinbestekotzat du merkataritza txikia eta, horregatik, alor guztietan hura sustatzeko neurri eraginkorrak, transbertsalak eta koherenteak hartu eta inplementarazteko konpromisoa hartzen du.

1- El Pleno de Donostia / San Sebastián considera el pequeño comercio como un sector fundamental para el desarrollo de un modelo de ciudad viva y sostenible y se compromete, por ello, a adoptar y hacer implementar, en diversos ámbitos, medidas eficientes, transversales y coherentes para impulsarlo.

2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eta alkateari eskatzen die bidean diren eta gauzatzeke dauden auzoz auzoko merkataritzaren sustapen planak gauza ditzatela eta azter dezatela antzeko planak beste auzo batzuetara eramateko aukera.

2- El Pleno de Donostia / San Sebastián insta al alcalde y al Gobierno Municipal a implementar los planes de comercio que están pendientes en diversos barrios y a analizar la posibilidad de realizar proyectos parecidos en otros barrios de la ciudad.

3-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eta alkateari eskatzen die merkataritza alorreko edozein proiektu bultzatu baino lehen, azter dezatela nolako eragina duen dendari txikien sektorean eta, kasu orotan, azken sektore honen sustapena eta babesa izan dezatela lehentasun.

3- El Pleno de Donostia / San Sebastián insta al alcalde y al Gobierno Municipal a analizar, previamente a impulsar cualquier proyecto relacionado con el comercio, las consecuencias de dicho proyecto en el pequeño comercio de la ciudad y a priorizar, en todos los casos, la protección y el fomento de este último sector.

Donostian, 2017ko urriaren 24an

Donostia, 24 de octubre de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
Portavoz del grupo municipal EH Bildu de Donostia“.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**7. Ebazpen proposamena, Donostiako Sozialistak PSE-EE Taldeak aurkeztua, Donostiako udalaren etxebizitza politikari buruzkoa**

**7. Propuesta de resolución que presenta el Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE relativa a la política municipal de vivienda en Donostia / San Sebastián.**

“Ernesto Gascok, PSE-EE Donostiako Sozialistak taldearen bozeramaileak,

“D Ernesto Gasco, Portavoz del Grupo Socialistas Donsotiarras PSE-EE, al amparo del

Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluan oinarrituta, honako EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten du DONOSTIAKO UDALAREN ETXEBIZITZA POLITIKARI buruz, POLITIKA OROKORREKO URTEKO ADIERAZPENARI buruzko Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA:

Etxebizitzaren garrantzia, gizarte kohesiorako oinarrizko elementu den heinean

Krisialdi ekonomikoak ekarri duen errealitate honetan, Donostian gero eta pertsona gehiagok izaten dituzte zailtasunak lana aurkitzeko edo hari eusteko eta hipoteka edo alokairua ordaintzen jarraitzeko. Gainera, etxebizitzen erabilerarekin lotutako formula ekonomiko berriak agertu dira; esate baterako, erabilera turistikorako alokatzen diren etxebizitzak. Egoera horiek guztiak direla eta, alde batetik, etxebizitzak erosteko eskaria murriztu egin da, eta alokairu eskaria, areagotu; eta, beste alde batetik, alokairuaren prezioak igo egin dira.

Talde Sozialistak kontuan hartu du egoera berri hori proposamen hau prestatzean, eta honako premisa hau hartu du oinarri: pertsonen duintasunaren balioa, haiek beren bizitza gauzatzeko leku bat izatea merezi dutela kontuan hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Legeak dioen eran, Etxebizitza izateko eskubidea nahitaezkoa da gizakiarentzat, funtsezko beste eskubide batzuk baldintzatzen baititu; adibidez, enplegua izatekoa, botoa ematekoa, prestazio eta

vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLITICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, RELATIVA A LA POLÍTICA MUNICIPAL DE VIVIENDA EN DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

JUSTIFICACIÓN:

La importancia de la vivienda como elemento básico de cohesión social

La crisis económica ha dibujado una realidad de San Sebastián con más personas con dificultades para encontrar o mantener su empleo y afrontar el pago de la hipoteca o del alquiler. A ello se debe añadir la aparición de nuevas fórmulas económicas de uso de las viviendas, nos referimos al alquiler de viviendas para uso turístico. Estas circunstancias han provocado una disminución de la demanda de compra de vivienda y un incremento de la demanda de alquiler por un lado, y han originado un alza de los precios del alquiler, por otro.

El Grupo Socialista ha tenido muy en cuenta este nuevo escenario al considerar la presente propuesta, y que parte de una premisa fundamental: el valor de la dignidad de las personas, en cuanto a que éstas merecen tener un lugar donde desarrollar su vida.

Como dice la Ley de Vivienda del País Vasco, el derecho a disfrutar de una vivienda constituye una necesidad vital para el ser humano por cuanto condiciona el disfrute de otros derechos esenciales como tener un empleo, ejercer el derecho de sufragio, acceder a las prestaciones

zerbitzu publikoak jasotzekoa, seme-alabak eskolaratzekoa, kulturaz eta ingurumen egokiaz gozatzekoa, bizipenak senideekin eta lagunekin partekatzekoa, eta beste hainbat ere, itzal handieneko doktrinak eta justizia auzitegiek behin eta berriz nabarmendu dutenez. Etxebizitza izateko eskubideak eta eskubide hori benetan gauzatzeak bizitza duin bat eramatea errazten eta ahalbidetzen diote gizakiari.

y a los servicios públicos, escolarizar a los hijos, gozar de la cultura y de un medio ambiente adecuado, compartir las vivencias con familiares y amigos y un sinfín más reiteradamente puesto de relevancia tanto por la doctrina más autorizada como por los propios tribunales de justicia. El derecho a disfrutar de una vivienda y su realización efectiva facilitan y permiten al ser humano llevar una vida digna.

Hortaz, egiaztatuta geratzen da bizitoki egoki bat izateak lotura estua duela bizitza pertsonala eta familiakoa gauzatzeko aukerarekin. Hori horrela, pertsonen duintasuna bermatzeko ezinbesteko elementua da etxebizitza. Hura, pertsonen bizitza pribatua han gauzatzeaz gainera, familiak eta komunitateak biltzeko, bizikidetzan egoteko, babesteko eta zaintzeko espazioa da. Hitz batean esanda, gizakien oinarrizko behar bat da.

Se acredita por tanto que existe un estrecho vínculo entre disponer de un alojamiento adecuado y la posibilidad de desarrollar un proyecto de vida personal y familiar; por eso la vivienda es un elemento fundamental para garantizar la dignidad humana. En ella no sólo se desarrolla la vida privada de las personas, sino también es un espacio de reunión, de convivencia, protección y cuidado de las familias y comunidades. En una palabra, es una necesidad básica de la condición humana.

Gure hiria, Donostia, lurraldean hiri eragin handia duen eremua izanik, etxebizitzei dagokienez, ohartzen gara pertsona batzuek etxebizitza ez dutela ikusten ostatu irtenbide gisa soilik, finantza merkatuaren gorabeheren eta ziurgabetasunaren aurrean inbertsio seguruagoak egiteko aukera gisa ere ikusten baitute batzuek.

Nuestra ciudad, Donostia / San Sebastián, como gran área de influencia urbana, dentro del territorio, en lo referente a la vivienda, no es tampoco ajena al contexto socioeconómico y el interés de algunas personas en contemplar la vivienda no sólo como una solución habitacional, sino también como un elemento de inversión más segura ante la incertidumbre y los vaivenes del mercado financiero.

Egoera soziodemografikoa

La situación sociodemográfica

Populazioaren piramidea aztertuz gero, garbi ikusten da populazioa zahartzen ari dela. Adin taldeen araberako banaketaren bilakaerari dagokionez, adin gazteenetako kideen kopurua txikitzen ari da, eta adin helduenetakoena, berriz, handitzen. Bizitza luzatzearekin batera, beste modu batean

Analizando la pirámide de población, se comprueba el envejecimiento de la población. La evolución de la distribución por grupos de edad muestra un descenso de efectivos en las edades más jóvenes, a la vez que un aumento en las edades más maduras. El alargamiento de la vida ha supuesto la redefinición de las edades, la

zehaztu behar izan dira adinak: gaztaroa luzatu egin da, eta, beste alde batetik, gaur egun, osasuntsu dagoen 65 urteko pertsona bat ez dugu adineko pertsonatzat jotzen.

juventud se ha alargado y, por otro, hoy en día no consideramos anciana a una persona de 65 años que goce de buena salud.

Sendi motei dagokienez, EAEn azken urteotan bizi izandako prozesu demografikoek aldaketa sakonak eragin dituzte familia moten banaketan. Familia kopurua abiada handiagoan ugaritu da pertsona kopurua baino; horrek esan nahi du familien batez besteko neurria txikitu egin dela.

Si atendemos a la tipología de los hogares, los procesos demográficos sufridos en la CAE en los últimos años han alterado profundamente la distribución de tipos de familias. Se constata que el número de familias ha aumentado a un ritmo mayor que el de población, lo que se traduce en una disminución del tamaño medio familiar.

Azpimarragarria da, baita ere, murriztu egin dela eredu tradizionaleko familia batean, seme-alabak dituen bikote batez osatutakoan alegia, bizi diren pertsonen kopurua, eta, aldiz, ugaritu egin direla pertsona bakarreko eta guraso bakarreko familiak. Edonola ere, azken horien jatorria aldatu egin da; garai batean, guraso bakarreko familia gehienak ezkontideetako bat hildakoan sortzen ziren, eta, gaur egun, berriz, gehienak bikotearen dibortzioaren edo banantzearen ondorioz sortzen dira.

Otro dato destacable es la disminución de la proporción de población que vive en una familia tradicional o pareja con hijos, mientras se ha producido un aumento de familias unipersonales y monoparentales. No obstante, el origen de estas últimas es diferente; si antiguamente la mayor parte de los núcleos se formaban por la defunción de uno de los cónyuges, en la actualidad en gran parte de ellos son producto del divorcio o separación de la pareja.

Gurasoen etxea uzteko adinari buruz, esan behar da azken urteetan luzatu egin dela, eta 30 urtetik gorakoa dela orain. Egungo egoera sozioekonomikoarekin lotuta dago hori. Langabeziak eta behin-behineko lanek eragin sakona izan dute populazio gaztearen familia dinamiketan, emantzipatzea zaildu baitute; baliteke Donostian hori ez gertatzea Espainiar Estatuko gainerako tokietan bezainbeste, langabezia tasa txikiagoa delako, baina hemen ere gertatzen da.

En cuanto a la edad de abandono del hogar paterno, en los últimos años se ha producido un aumento de la misma, sobrepasando la cifra de los 30 años. Esta realidad tiene su respuesta en la situación socioeconómica actual. El paro y la eventualidad laboral han afectado profundamente a las dinámicas familiares de la población joven dificultando en gran medida las posibilidades de emancipación, algo que quizá no se produzca en San Sebastián de manera tan acusada como en otros lugares del Estado, debido a una tasa de paro menor, pero que también existe aquí.

Hiri estrategia eta etxebizitza

La estrategia urbana y la vivienda

Etxebizitza lortzea ahalbidetzeko irtenbide gisa, eraikitako parkea birgaitzeko jarduerak bururatu zaizkigu lehenbizi. Kontuan hartu behar dugu parkearen erdia baino gehiago 40 urtetik gorakoa dela. Horrek esan nahi du, alde batetik, denboraren eraginez fisikoki hondatuta egongo direla, baina, gainera, funtzionalki zaharkituta daudela, beste garai bateko familia ereduentzat eta erabileretarako prestatuta zeudelako, irisgarritasunari eta tamainari dagokienez bereziki.

En cuanto a las soluciones para posibilitar el acceso a la vivienda, pensamos en primer lugar en las actuaciones de rehabilitación del parque edificado. Debemos considerar que más de la mitad del parque tiene más de 40 años de edad. Ello conlleva no sólo un deterioro físico por el paso del tiempo, sino también una cierta obsolescencia funcional, al responder a modelos familiares y usos propios de otro tiempo, principalmente por motivos de accesibilidad y de tamaño.

Beste alde batetik, hiri multzoaren ikuspegitik, hiriko zaharberritze ekimenak lurraldea berrerabiltzeko eta birziklatzeko bidea emango duten estrategietan kokatu behar dira, eta lurraldea diogunean haren ideia globalari buruz ari gara. Ildo horretatik, erabilera berriak sortu behar dira urbanizazioak hartuta dituen espazioetan, eta, horrela, hazkunde beharra murriztuko litzateke, hiri sarean sartuta ez dauden lurzoru berriak hartu beharrik izan gabe.

Por otro lado, desde una perspectiva de conjunto urbano, las iniciativas de renovación urbana deben plantearse como una estrategia que permita impulsar la reutilización y reciclado del territorio considerado en forma global, desarrollando nuevos usos en espacios que ya se encuentren ocupados por la urbanización y permitiendo de esta forma reducir la necesidad de crecimiento a través de la ocupación de nuevos suelos no integrados en la trama urbana.

Hortaz, iruditzen zaigu birgaitzeari eta zaharberritzeari bigarren mailako papera ematen zieten orain arteko eredu hedakorrak alde batera utzi behar direla, eta, aldiz, jarduera horiei gero eta garrantzi handiagoa eman behar zaiela, eta eraikuntza jardueraren oinarri izan behar dutela datozen urteotan. Horrela, eraikitako lurzoruak birziklatzea eta berrerabiltzea eta zaharkituta geratu diren edo erabiltzen ez diren espazioak berriztatzea datozen urteotako euste politiken ardatz bihurtu behar dira.

Así, frente a los anteriores modelos expansivos en los cuales la rehabilitación y regeneración urbana solo tenían un papel secundario, se plantea la necesidad de que esta última cobre un creciente protagonismo, constituyéndose en la base principal de la actividad constructiva durante los próximos años. De esta forma, el reciclado y la reutilización de los suelos construidos y las operaciones de renovación de espacios obsoletos o en desuso se plantea como una opción central en cualquier política de contención para los próximos años.

Horiekin batera, beharrezkoa izango da, baita ere, plangintza malguagoak egitea, garapen berrien erabilerei, motei eta

Junto a la misma, otras actuaciones necesarias serán la mayor flexibilidad del planeamiento en cuanto a mezcla de usos, tipologías y

dentsitateei eta hirigintza hazkundeei eta garraio kolektiboko sistemei dagokienez.

densidades en los nuevos desarrollos y la vinculación entre crecimientos urbanísticos y sistemas de transporte colectivo.

Populazioak etxebizitzaren alorrean dituen beharrak aldatu egiten dira denborak aurrera egin ahala, eta eskakizun sozial eta bizikidetza modu berrien araberakoak izaten dira.

Las necesidades de la población en materia de vivienda resultan así ser cambiantes con el tiempo, y responden a nuevos requerimientos sociales y formas de convivencia.

Ondasunen erabilera partekatzeko modu berriak (edo ez hain berriak)

Las nuevas (o no tan nuevas) formas de compartir el uso de bienes

Ingurune europarrak erakusten digu zenbait ondasunen erabilera ohiturak aldatu egiten direla: guztiok ohitu gara beste pertsona batzuekin auto berean joateko esperientzietara, eta duela gutxira arte arraroak ziren lankidetza sozialeko beste hainbat modutara.

Nuestro entorno europeo nos muestra cómo cambian los hábitos de uso de diversos bienes: todos estamos acostumbrados ya a experiencias de compartir coche, y otras muchas formas de colaboración social que hace poco eran muy extrañas.

Etxebizitzaren alorrera ere iritsi da hori, eta kolektibo batzuentzat (adibidez, pertsona bananduak, lehen aldiz lanean dauden gazteak, eta abar) bizitoki egoki bat prezio baxuan lortzeko aukera ematen duen irtenbide duina eta eraginkorra izan daiteke etxebizitza beste pertsona batzuekin partekatzea. Iraganean ere ezagutzen genituen aukera horiek, baina, zalantzarik gabe, plataforma eta harremanetarako bitarteko sozial berriek erraztu egin dituzte, eta indartuta daude gaur egun.

Esto también ha llegado a la vivienda, y para ciertos colectivos (por ej.: personas separadas, jóvenes con su primer empleo, etc….) el compartir vivienda puede ser una medida digna y eficaz, que permita disponer de una morada adecuada a un precio muy contenido. Si bien ya lo hemos vivido en el pasado, indudablemente, las plataformas y medios de relación social, permiten agilizar en gran medida estas posibilidades, que cobran nueva vitalidad.

HIRIAK DATORREN HAMARKADAN ETXEBIZITZEN ALORREAN IZANGO DITUEN ERRONKAK

RETOS DE LA CIUDAD EN MATERIA DE VIVIENDA PARA LA PRÓXIMA DÉCADA

Hiriak datorren hamarkadan etxebizitzen alorrean izango dituen erronketako batzuk azpimarratu nahi ditugu, guztiak bi printzipio hauetan oinarritutakoak: hiria birgaitzea eta

Como principales retos de la ciudad en materia de vivienda para la próxima década queremos marcar los siguientes, basados todos ellos en dos principios: la rehabilitación urbana y el

alokairua sustatzea.

Edonola ere, neurriak elkar eraginean ulertu behar dira, etxebizitzaren arazoa gure gizarteko egiturazko beharra denez, irtenbidea (edo arazoa arintzeko bidea) inoiz ez delako neurri solteetatik etorriko. Halaber, proposatzen ditugun neurriak baliagarriak dira alokairuan bizi diren pertsonentzat zein jabetzan dituzten etxeetan bizi diren pertsonentzat.

1.- Etxebizitzak birgaitzea, eraikita dagoen parkea guztien irisgarritasunaren eskakizunetara egokitzeko:

Etxebizitzen irisgarritasuna etxebizitzen alorreko politika publikoen bidez landu beharreko gai nagusietako bat da. Desgaitasuna duten pertsonentzat eta pertsona nagusientzat, funtsezko beharra da jabekideen elkargoen eraikinak guztientzat irisgarriak izatea, eta behar horrek lotura zuzena du oinarrizko giza eskubide batzuekin, hala nola mugitzeko edo komunikatzeko askatasunarekin edo etxebizitza duina izateko eskubidearekin. Desgaitasuna duten pertsonek gure herrialdean gehienetan pairatzen duten diskriminazio arrazoietako bat espazioen irisgarritasun eza izaten da. Donostian, 11.300 etxebizitza baino gehiagotan jarri ahal izango litzateke igogailu bat. Etxebizitza horietan, ia 30.000 donostiar bizi dira, eta horietako asko pertsona nagusiak dira, edo irisgarritasun behar nabariak dituztenak.

Hiriak arazoaz jabetu behar du, eta ez moralki edo intelektualki soilik; giza eta aurrekontu baliabideak ere bideratu behar dira, eraikitako parkea pixkanaka irisgarritasun beharretara egokitzea

fomento del alquiler.

En todo caso, deberán entenderse como una necesaria interrelación entre los mismos, siendo el problema de la vivienda una necesidad estructural de nuestra sociedad, cuya solución (o al menos mitigación) nunca podrá venir por medidas aisladas. Asimismo, las medidas que se proponen, son válidas tanto para personas que viven de alquiler, como para propietarios de las viviendas en que residen.

1- Rehabilitación de viviendas mediante adaptación del parque edificado a los requerimientos de accesibilidad universal:

La accesibilidad en las viviendas constituye una de las principales cuestiones a abordar desde la perspectiva de las políticas públicas de vivienda. Dotar de accesibilidad universal a los edificios de comunidades de propietarios constituye para las personas con discapacidad y las personas mayores una necesidad básica que conecta con derechos humanos fundamentales tales como la libertad de desplazamiento o de comunicación o el de disfrutar de una vivienda digna. La falta de accesibilidad representa una de las causas más frecuentes de discriminación de que son objeto las personas con discapacidad en nuestro país. Existen en San Sebastián más de 11.300 viviendas que podrían ser susceptibles de colocación de un ascensor. En estas viviendas viven casi 30.000 donostiarras, de los cuales una parte importante son personas mayores, con necesidades de accesibilidad muy acusadas.

La ciudad debe tomar conciencia del problema no sólo a nivel moral o intelectual, sino que debe destinar de forma activa recursos humanos y presupuestarios, para fomentar activamente la progresiva adaptación del parque edificado a las

sustatzeko aktiboki.

Hori izango da hiria birgaitzeko eta zaharberritzeko politika eraginkor baten ezinbesteko abiapuntua.

2.- Etxebizitzak birgaitzea, eraikita dagoen parkea sendi berrien tamaina beharretara egokitzeko:

Azken hamarkadotan sendien neurria murriztu egin denez, berriz aztertu behar dira etxebizitzetarako behar diren batez besteko azaleren estandarrak, orain artekoak sendien batez besteko neurria askoz ere handiagoa zenean kalkulatu baitziren.

Hain zuzen ere, azterlan estatistikoek agerian utzi dutenez, datozen urteotan ugaritu egingo dira kide bateko edo bi kideko sendiak, eta 3 kide edo gehiago dituztenak, berriz, murriztu. Euskal Autonomia Erkidegoan, sendien % 27,2 kide bakarrekoa da; % 32,3, bi kidekoa; % 20,4, hiru kidekoa; % 16,3, lau kidekoa; eta % 3,9, soilik, bost kide edo gehiagokoa. EAEn, sendien batez besteko neurria 2,3 kide ingurukoa da.

Gure hirian, plangintzan, oro har, 85 m2-ko batez besteko azalera bat finkatzen da etxebizitza bakoitzerako. Azalera hori gehiegizkoa da sendi txikientzat. Askotan, gutxiegi erabilita egoten dira, pertsona nagusiak, alargunak eta abar 90 m2-tik gorako etxebizitzetan bizi baitira. Gainera, asko kostatzen da horiek berotzea edo bero edukitzea, eraginkortasun energetikoaren helburuetatik urrun. Garbi dago Donostiako sendien batez besteko neurria ez datorrela bat etxebizitzen batez besteko azalerarekin.

necesidades de accesibilidad.

Este será el primer e indispensable punto de partida para una efectiva política de rehabilitación y regeneración urbana.

2- Rehabilitación de viviendas mediante la adaptación del parque edificado a los requerimientos de tamaño de los nuevos hogares:

La reducción del tamaño de los hogares en las últimas décadas, hace necesario replantearse muy seriamente los estándares de superficie promedio exigido para las viviendas, calculados en épocas en que el tamaño medio familiar era mucho mayor.

De hecho, los estudios estadísticos demuestran que en los próximos años crecerán los hogares de 1 o 2 miembros, y disminuirán los de 3 o más. A nivel de Euskadi, ya el 27,2% son unipersonales, el 32,3% están integrados por dos miembros, el 20,4% por tres personas, el 16,3% por cuatro y solo el 3,9% tienen cinco o más miembros. Como promedio de Euskadi, el tamaño familiar está en torno a 2,3 miembros.

En nuestra ciudad, el planeamiento establece como regla general, una superficie promedio de 85 m2. Esta superficie se muestra excesiva para hogares pequeños. En muchos casos, están infrautilizadas, puesto que personas mayores, viudas, etc…, viven en viviendas de más de 90 m2, que cuesta mucho calentar y mantener, muy alejados de los objetivos de eficiencia energética. Es claro que el tamaño promedio de los hogares donostiarras no corresponde con la superficie promedio de las viviendas.

Hirigintza plangintzaren bidez etxebizitzak zatitzen uztea neurri eraginkorra izan liteke, etxebizitza berriak aterako lituzkeelako merkatura, eta etxebizitza txiki ugari gehituko liratekeelako alokairuko etxebizitzen merkatura.

Gainera, haien titularrek jasoko lituzketen diru sarrerek etxebizitza txiki eta doitu horiek birgaitzea eta egokitzea sustatuko luke ziurrenik, eta elbarritasunen edo pertsona nagusien eta abarren beharretara egokitzea. Azken batean, etxebizitzak une bakoitzeko behar sozial aldakorrari erantzun behar lioke, eta bere eginkizun soziala bete.

Gai hori aurreikusita dago Etxebizitzaren Legean, BIRGAITZEAREN ikuspegitik: etxebizitzak zatitzea eraikinaren egokitzapen funtzionala egiteko birgaitzetzat jotzen da, unean uneko eskakizun sozialetara egokitzeko. Etxebizitzaren Legeak gai horri ekiteko nahikoa kudeaketa tresna ematen ditu.

Neurri hori behar bezala planifikatu eta aztertu behar da. Horretarako, dagoeneko baditugu etxebizitza bakoitzeko biztanleko azalera erabilgarriari, eraikinen antzinatasunari, maizterren adinei, eraikinaren zuzkidurei eta abarri buruzko datu zehatzak, jarduera egokia egitea ahalbidetuko dutenak.

3.- Etxebizitza ibilbideak aktibatzea

Etxebizitza ondasun estatikoa da, baina haren funtzionaltasuna, berriz, dinamikoa. Etxebizitza bat egokia izan daiteke erabiltzailearen ezaugarri berezien arabera; adibidez, igogailurik gabeko etxebizitza bat ez da egokia pertsona nagusientzat, baina

Permitir la división de viviendas desde el planeamiento urbanístico puede ser una medida muy efectiva, que permita poner el mercado nuevas viviendas, y puede suponer la puesta en mercado de alquiler de un importante número de viviendas pequeñas.

Además, con los ingresos generados por sus titulares, se fomentará a buen seguro la rehabilitación y adecuación de sus viviendas, ya más pequeñas y ajustadas, y que se se adapten a minusvalías o personas mayores, etc…. En en definitiva, que la vivienda responda a la necesidad social cambiante de cada momento y cumpla su función social.

La cuestión viene ya prevista en la Ley de vivienda desde la perspectiva de la REHABILITACIÓN: la división de viviendas, se considera una rehabilitación mediante su adecuación funcional para adecuarlas a los requerimientos sociales del momento. La Ley de Vivienda da sobradas herramientas de gestión para abordar este tema.

Esta medida exige su correcta planificación y estudio. A tal efecto, ya disponemos de datos concretos sobre la superficie disponible por habitante y vivienda, antigüedad de la edificación, edad del habitante, dotaciones del edificio, etc…, datos concretos que permiten una correcta actuación.

3.- Activación de itinerarios de vivienda

La vivienda es un bien estático, pero su funcionalidad es dinámica: una vivienda resulta adecuada en función de las especiales características del usuario; así, una vivienda sin ascensor no es válida para personas mayores, pero resulta perfectamente útil para personas

oso erabilgarria da gazteentzat.

Edo, lehen aipatutako etxebizitzak zatitzeko neurriaren osagarri gisa, etxebizitza handi bat ez da egokia bakarrik bizi den pertsona nagusi batentzat, baina egokia izango litzateke zenbait pertsona elkarrekin bizitzeko.

Pertsona batzuk bakarrik bizi dira, irisgarritasun kaskarreko etxebizitza handiegietan, baina askotan ez dute beren etxebizitza utzi nahi izaten. Agian bizitza osoko aurrezkiak inbertituko zituzten han, bertan haziko ziren beren seme-alabak, eta beren bizipen guztien ardatz izango ziren. Eta guztiz zilegi da etxebizitza hori, haiek falta direnean, beren seme-alabei utzi nahi izatea.

Baina agian onartuko lukete, udalaren berme osoz, alokairuan parke babestuan sartzea, etxebizitza txikiagoetan eta egokiagoetan, eta, horren truke, beren etxebizitza alokairu babesturako uztea beste sendi edo bizikidetza modu batzuentzat.

Hori ere aurreikusita dago Etxebizitzaren Legean, eta, horregatik, lehenbailehen irisgarritasunik gabeko pisu handiegietan bakarrik bizi diren pertsona nagusientzat etxebizitza ibilbideak sortzea proposatzen dugu, parke babestuan sartzeko aukera izan dezaten, beren etxebizitza alokairu babestuan utziz trukean, dagokion berme osoz utzi ere.

4.- Zuzkidura bizitokiak sustatzea

Zuzkidura bizitokiak irtenbide egokiena dira behar espezifikoak dituzten pertsonentzat,

jóvenes.

O como complemento a la medida anteriormente indicada de división de viviendas, una vivienda grande no es adecuada para una persona mayor que vive sola, pero sí lo resultará para compartirse por varias personas.

Encontramos personas que viven solas, con mala accesibilidad y en viviendas demasiado grandes, pero que muchos casos no quieren deshacerse de su vivienda. Ésta constituye el ahorro de toda una vida, en ella han crecido sus hijos, y ha sido el centro de sus vivencias. Y resulta totalmente legítimo que su aspiración sea que esta vivienda pase a sus hijos cuando ellas ya no estén.

Pero sí que podrían estar dispuestas a, con todas las garantías municipales, acceder en alquiler al parque protegido, en alojamientos más pequeños y adecuados, con la correlativa cesión de su vivienda para alquiler igualmente protegido a otros tipos de hogares o fórmulas de convivencia.

Esto también viene previsto en la Ley de Vivienda, y planteamos por ello la activación inmediata de itinerarios de vivienda para aquellas personas mayores, que viven solas, sin accesibilidad y en pisos demasiado grandes para su necesidad, permitiendo su acceso al parque protegido, a condición de que cedan su vivienda para alquiler igualmente protegido, con las debidas garantías.

4.- Fomento de alojamientos dotacionales

Los alojamientos dotacionales se revelan como la fórmula idónea para personas con

pertsona nagusientzat bereziki, lehen aipatutako etxebizitza ibilbideak ahalbidetzen baitituzte.

Gehiago inbertitu behar da zuzkidura bizitokietan, oinarri sendoko auzoetan helburuak finkatuz, hala nola Grosen, Amaran, Antiguon, Intxaurrondon, Altzan eta beste batzuetan, datorren hamarkadan etxebizitzak eraikitzen jarraitzeko xedez.

5.- Hiria birgaitzeko eta zaharberritzeko jarduerak

Aipatutako neurri horiek guztiak beste neurri gidari batzuez lagundu behar dira nahitaez, hirian gutxiegi erabiltzen diren edo hondatuta dauden espazioak leheneratzeko.

Ildo horretatik, Donostiako egoitza estrategia bezala lehentasun izan behar duten jarduera sendoak eta biziak proposatzen ditugu; zentzu horretan, datozen urteotarako helburutzat jotzen dugu Loiolako kuartelak berreskuratzea, hiri sarean sartzeko esparru bikain diren heinean, horrela Urumearen ardatza sendotzeko Loiolatik Martuteneraino.

Pieza garrantzitsu horretan, ia 2.000 etxebizitza sor daitezke, eta, gure ustez, babestua izan beharko luke erdiak gutxienez. Era berean, behar espezifikoetarako zuzkidura bizitokiak ere sortu ahal izango lirateke.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen bozeramaileak honako EBAZPEN PROPOSAMEN hau egiten du Udalbatzan aztertua izan dadin:

1.- Donostiako Udalbatzak premiazko lehentasuntzat jotzen du egoitzak birgaitzea

necesidades específicas, especialmente personas mayores, al permitir los itinerarios de vivienda antes indicados

Debe intensificarse el esfuerzo inversor en Alojamientos dotacionales, planteando objetivos en barrios consolidados como Gros, Amara, Antiguo, Intxaurrondo, Altza, y otros, con un objetivo de  seguir copnstruyendo apartamentos en la próxima década.

5.- Actuaciones de regeneración y renovación urbana

Las anteriores medidas, deben en todo caso acompañarse de medidas tractoras, que permitan la recuperación para ciudad de espacios infrautilizados o degradados.

En este sentido, planteamos actuaciones de choque que deben ser prioridad como la estrategia residencial de Donostia; en este sentido, identificamos como objetivo para los próximos años la recuperación de los Cuarteles de Loiola como ámbito perfecto para su incorporación a la trama urbana, y consolidar así el eje del Urumea desde Loiola hasta Martutene.

En esta importante pieza, se pueden plantear cerca de 2000 viviendas, de las que estimamos que por lo menos la mitad, deberían ser protegidas. Asimismo, podrían plantearse diversos edificios dotacionales para necesidades específicas.

Es por lo que el Portavoz que suscribe presenta la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para ser debatida en el Pleno:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián asume como prioridad inmediata el

aktiboki sustatzea, irisgarritasun irtenbideen bidez, bereziki pertsona nagusiak edo baliabide oso gutxi dituztenak bizi diren etxebizitzetan.

2.- Donostiako Udalbatzak premiazko lehentasuntzat jotzen du egoitzak birgaitzea aktiboki sustatzea, eraikitako parkea sendi berrien neurri eskakizunetara egokitzeko, eta, azterlan egokiak egin ostean, etxebizitzak zatitzeko aukerak ematea aktiboki.

3.- Donostiako Udalbatzak premiazko lehentasuntzat jotzen du etxebizitza ibilbideak sustatzea, dagoeneko beren beharretarako egokiak ez diren etxebizitzetan bizi diren pertsonak, batez ere adinagatik edo sendiaren osaeragatik, etxebizitza babestuen parkean sartu ahal izateko.

4.- Donostiako Udalbatzak premiazko lehentasuntzat jotzen du zuzkidura bizitokiak sustatzea, pertsona nagusientzako etxebizitza ibilbideak gauzatzeko ezinbesteko tresna diren heinean, eta datozen urteotan egin beharreko inbertsioak egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Espainiako Gobernuaren Defentsa Ministerioari saia dadila dagozkion erakundeen akordioak lortzen Udalak Loiolako kuartelak dauden lursailak hartu ahal izateko, horiek hiri sarean sartzeko etxebizitza babestuen jardueren baitan, horrek eraldaketa sakona ekarriko lukeelako gure hiriko esparru horretara.

Donostian, 2017ko urriaren 24an.

fomento activo de la rehabilitación residencial mediante la solución a la accesibilidad, especialmente en viviendas ocupadas por personas mayores y con pocos recursos.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián asume como prioridad inmediata el fomento activo de la rehabilitación residencial mediante la adaptación del parque edificado a los requerimientos de tamaño de los nuevos hogares, y previos los estudios oportunos, posibilitar activamente la división de viviendas.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián asume como prioridad inmediata el fomento de los itinerarios de vivienda, mediante fórmulas que permitan el acceso al parque protegido a aquellas personas que residen en viviendas que ya no son adecuadas para sus necesidades, especialmente por motivos de edad o composición familiar.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián asume como prioridad inmediata el fomento de los alojamientos dotacionales, como herramienta imprescindible para los itinerarios de vivienda para personas mayores, comprometiéndose a la inversión necesaria en los próximos años.

5.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián demanda al Ministerio de Defensa del Gobierno de España la búsqueda de acuerdos institucionales que permitan al ayuntamiento hacerse con los terrenos donde actualmente se ubican los Cuarteles de Loiola, para su incorporación a la trama urbana en desarrollo de una actuación de vivienda protegida que pueda suponer una verdadera actuación de “choque” en ese ámbito en nuestra ciudad.

En Donostia / San Sebastián, a 24 de octubre de

2017

Sin.: Ernesto Gasco Gonzalo,
PSE-EE Donostiako Sozialistak taldearen bozeramailea".

Fdo: Ernesto Gasco Gonzalo
Portavoz Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE".

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**7. PROPOSAMENAREN 1., 2. ETA 3. PUNTUEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LOS PUNTOS N.º 1, N.º 2 Y N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**7. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA PROPUESTA N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**7. PROPOSAMENAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA PROPUESTA N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**8. Ebazpen proposamena, Donostiako Sozialistak PSE-EE Taldeak aurkeztua, Donostia kalitatezko helmuga turistiko iraunkorra izatearen alde.**

“Donostiako Sozialistak PSE-EE Talde Politikoko bozeramaile Ernesto Gascok, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 55. artikuluan oinarrituta, honako ERABAKI PROPOSAMEN hau, DONOSTIA KALITATEZKO HELMUGA TURISTIKO IRAUNKORRA IZATEAREN ALDE, aurkezteko ohorea du POLITIKA OROKORREKO URTEKO ADIERAZPENARI buruzko Udalbatzan aztertua izan dadin.

JUSTIFIKAZIOA:

Donostiak krisi ekonomikoari aurre egiteko hainbat ekintza inklusibo burutu ditu, Donostia – San Sebastián UP! plan ekonomikoen onespena eta garapena bitarteko, eta 2017an krisialdi hori gainditzeko prozesua sendotzea izan du xede.

Plan horietan bildutako neurrien giltzarrizko elementuak berrikuntza eta modernizazioa dira, eta hiru ardatz hauen inguruan antolatuta daude: pertsonak eta beren gaitasunak, enpresen lehiakortasuna eta lurralde kohesioa.

Hiriaren konpromiso ekonomiko horren helburua da enplegua sustatzeko eta sortzeko baldintza egokienak eratzea, Administrazioaren eta enpresa ehunaren ahaleginak bateratuta. Gaur egun, helburu

**8. Propuesta de resolución que presenta el Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE po r Donostia / San Sebastián como destino turístico sostenible y de calidad.**

“D Ernesto Gasco, Portavoz del Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLITICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, POR DONSOTIA / SAN SEBASTIÁN COMO DESTINO TURÍSTICO SOSTENIBLE Y DE CALIDAD

JUSTIFICACIÓN:

La ciudad de Donostia / San Sebastián, con la aprobación y desarrollo de los planes económicos Donostia-San Sebastián UP!, ha afrontado un conjunto de acciones inclusivas para luchar contra la crisis económica, y en el presente año 2017, para consolidar la salida de la misma.

Las medidas englobadas en estos planes tienen a la innovación y a la modernización como elemento clave y se agrupan en tres ejes: las personas y sus capacidades, la competitividad empresarial y la cohesión territorial.

El objetivo principal de este compromiso económico de la ciudad, englobando los esfuerzos de la administración y el tejido empresarial, era y es la creación de las condiciones más adecuadas para generar y

hori norabide egokian doala esan dezakegu. Azken hiru urteotan etengabe sortu da enplegua. Orain lanik gabe dauden pertsonak % 10 baino gutxiago dira; 2014an 12.000 langabetik gora zeuden, eta orain 4.000 pertsona gutxiago ari dira lan bila.

crear empleo. Este objetivo, a día de hoy, podemos afirmar que va en la dirección adecuada. La creación de empleo ha sido una constante en los últimos 3 años. En la actualidad las personas en situación de desempleo se encuentran por debajo del 10% y desde el año 2014, dónde se alcanzó la cifra de más de 12000 desempleados, se ha logrado reducir en casi 4000 personas las que se encuentran aún en la situación de búsqueda de empleo.

Hala eta guztiz ere, hobekuntza hori ez da nahikoa, eta Udalean eragile sozial eta ekonomikoekin lanean jarraitu nahi dugu, baldintza egokienak sortzeko, helburu hauek lortze aldera: ekintzaileei bidea erraztea; jarduera ekonomiko berriak sortzea; talentua atxikitzea, berreskuratzea eta erakartzea; etengabeko prestakuntza hobetzea eta Donostia smart city gisa sendotzea.

Esta mejora no es aún suficiente y desde el Ayuntamiento queremos seguir trabajando con los agentes sociales y económicos para generar las condiciones más adecuadas para facilitar el emprendimiento, la creación de nuevas actividades económicas, la retención y la recuperación y atracción del talento, la mejora de la formación continua o la consolidación de San Sebastián como ciudad Smart.

Erronka eta ahalegin asko dira, baina lan horren emaitzak ikusten hasi gara. Datu hauek hala adierazten dute: ia 5.000 enplegu berrikuntzaren arloan, dozena bat enpresa baino gehiago aukeratu dituzte EBko programek gai horietan, Replicate europar proiektuaren aintzatespena lider gisa, parke teknologikoen garapena eta abar. Hau da, berrikuntzarentzat, talentuarentzat eta teknologia berrientzat lagungarria eta onuragarria izango den ekosistema bat eraikitzen ari gara.

Son muchos los retos y los esfuerzos pero estamos empezando a ver los frutos de este trabajo. Algunos datos así lo demuestran: casi 5000 empleos en el campo de la innovación, más de una docena de empresas seleccionadas por los programas de la UE en estas materias, reconocimiento como líderes del proyecto europeo Replícate, el desarrollo de los Parques tecnológicos, etc. Es decir, estamos construyendo un ecosistema dónde la innovación el talento y las nuevas tecnologías tienen un contexto amigable y favorable.

Ekonomia berriaren aldeko apustu horrek aniztasunean eta orekan oinarritutako egitura ekonomikoa du euskarri. Barne produktu gordinaren % 13 eremu bio-sanitarioari dagokio, % 13 merkataritza eremuari, % 12 hezkuntzari lotutako arloari eta % 10 berrikuntza teknologikoari. Nahastura da gure ezaugarri nabarmenetako bat, eta

Esta apuesta por la nueva economía camina con una estructura económica caracterizada por su diversidad y equilibrio. Con un 13% del PIB en el ámbito Bio-Sanitario, otro 13% en el ámbito comercial, un 12% relacionado con la educación y un 10% en la innovación tecnológica. La mixtura es una de nuestras características mas evidentes y facilita la convivencia entre los

horrek sektore ekonomiko tradizional eta modernoen arteko bizikidetza bideratzen du. Horrexegatik, gure helburu nagusia da horiek guztiak hobetzea eta modernizatzea.

sectores económicos tradicionales y los más modernos. Es por ello, que nuestro objetivo primordial es la mejora y modernización de todos ellos.

Testuinguru horretan, turismoaren sektoreak garrantzi estrategikoa izan du historian zehar Donostian. Alde batetik, barne produktu gordinaren % 13 dagokio turismoaren sektoreari, eta 15.000 pertsona baino gehiagori ematen die enplegua. Tokiko enpresa txiki eta ertainak gailentzen dira, sektoreko enpresa guztien % 95 baitira.

En este contexto, el sector turístico ha tenido y tiene históricamente una importancia estratégica en San Sebastián. Por un lado, representa un 13% del PIB y da empleabilidad a más de 15.000 personas, caracterizándose por ser pequeñas y medianas empresas de carácter local que representan un 95% del total.

Donostiak, Euskadik bezala, arazo handiak izan ditu hainbat urtez turismoaren sektorean; izan ere, bistakoa da indarkeria terroristak garapen egokia eragozten zuela. Horregatik eta krisi ekonomikoagatik, aurreko Udalbatzak plan bat onetsi zuen, hazkundea eta dibertsifikazioa helburu nagusi hartuta. Helburu horiek lortu ziren, neurri handi batean. 2016an Donostia Europako kultura hiriburu izan zenean politika horiek gailurra jo zuten.

Donostia / San Sebastián, al igual que Euskadi, ha vivido años de gran dificultad para este sector turístico, pues resulta evidente que la violencia terrorista impedía su desarrollo adecuado. Por esta razón y por la crisis económica, la corporación anterior aprobó un Plan cuyos objetivos principales eran el crecimiento y la diversificación. Estas metas se lograron en gran medida. La celebración de la Capitalidad Europea de la Cultura, el pasado año 2016, supuso la cima de estas políticas.

Urtebeteko hausnarketa, eztabaida eta parte-hartzearen ondoren, Udalak 2017-2021 epealdirako onetsi duen plan zuzentzaile berriak bestelako eredu turistiko bat planteatzen du. Donostiako turismoaren helburu berriak iraunkortasuna, oreka, helmugaren kalitatea eta benetakotasuna dira. Eta, helburu horiek lortzeko, tresna berriak beharko dira:

- Ostatalekuak arautzea, erabilera turistikorako etxebizitzak arautuko dituen berariazko ordenantza baten bidez.
- Urtaro jakin batera ez mugatzea, eta behe-denboraldirako kanpaina eta ekitaldiak egitea.
- Mugikortasun sostengagarria.

